

# Lezoko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa eta Berdintasunerako II. Plana

2014ko uztaila



Lezoko Unibertsitateko Udala

**elhuyar**  
Aholkularitza



1.	Sarrera.....	4
2.	Prozesua eta metodologia.....	6
2.1.	Ebaluazio-prozesuaren ezaugarri nagusiak.....	6
2.2.	Oinarri metodologikoak.....	8
2.3.	Prozesuaren faseak.....	10
2.3.1.	Aurrelanak: lan-baldintzak sortzea.....	10
2.3.2.	I. Berdintasunerako Planaren ebaluazioa.....	11
2.3.3.	II. Berdintasunerako Planaren diseinua.....	17
2.4.	Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa .....	19
3.	Lezoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren ezaugarriak.....	33
4.	Ebaluazioaren emaitza.....	42
4.1.	Helburu eta ekintzen betetze-maila .....	42
4.2.	Landu ez diren ekintzak eta horretarako arrazoiak.....	43
4.3.	Berdintasunerako Plana garatzearen inpaktua.....	44
4.4.	Planaren errotze-maila .....	44
4.5.	Planetik kanpo egin diren berdintasun-ekimenak.....	44
5.	Ebaluazioaren ondorio nagusiak .....	46
6.	Plan berriaren lan-ardatzak.....	47
7.	Lezoko Berdintasunerako II. Plana .....	48
7.1.	Planaren programak .....	49

7.2.	Planaren helburuak .....	50
7.3.	Ekintza Plana .....	53
8.	Planaren kudeaketa-eredua.....	87
8.1.	Kudeaketarako egiturak.....	88
8.2.	Aurrekontua .....	91
8.1.	Ebaluazio-sistema .....	92
	<b>Eranskina: ekintzak ebaluatzeko fitxa-eredua .....</b>	<b>95</b>

Lezoko Udalak 2011. urtean izan zuen lehen ekimena udalerrirako berdintasun-plan bat lantzeko. Plan hori 2011n bertan landu zen, eta Lezoko Emakume eta Gizonen Egoerari Buruzko Diagnostikoan identifikaturiko behar eta proposamenetan oinarritu zen. Diagnostiko hori egiteko, metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu ziren, eta berdintasunarekin erlazionatuta zeuden pertsonen parte hartzea bultzatu zen. Horiez gain, Lezoko herritar guztiek izan zuten parte hartzeko aukera diagnostikoa egiteko ireki zen prozesuan. Horretarako, hainbat tresna eta teknika espezifiko jarri ziren martxan, hala nola elkarrizketa indibidualak, herritarrekiko topaketak, galdetegiak, Lezoko webgunea eta Lezoko Udaleko zenbait lan-deialdi.

2011-2014ko Plana 2014an ere izango da indarrean, baina Lezoko Udalak Planaren ebaluazioa egitea erabaki du, urte horietako ebaluaziotik ateratako ondorioekin etorkizuneko lan-ildoak zehazteko. Finean, Planaren helburuak lortu diren ala ez aztertuz eta horiek izan duten eragina baloratzuz, jakin nahi izan da, batetik, zergatik izan duen Planak halako bilakaera, eta, bestetik, zein ahulgune eta indargune izan dituen, betiere, etorkizuneko lan-ildoak zehaztu ahal izateko.

Ebaluazio-prozesuaren bidez, beraz, I. Planaren **betetze-mailaren eta eraginkortasunaren** inguruko hausnarketa bideratu nahi izan dugu, eta **aurrera begirako lan-ildoak** identifikatu. Hortaz, txosten honetan jasotakoak oso kontuan hartu beharko dira aurrerantzean berdintasunaren aldeko politikak egiteko landuko diren tresnetan, Berdintasunerako II. Plana, ordenantza eta lan-markoa edonolakoak izanda ere.

Hori horrela, ebaluazioak bi xede nagusi izan ditu:

- **Orain arte egin dugun lana** ezagutaraztea, zabaltzea eta hari balioa ematea, eta egindako lanaren eta lortutako emaitzen inguruko balantzea egitea.
- Aurrera begira, berdintasunaren aldeko politikak egiteko garaian **jarraitu beharreko lan ildoak** identifikatzea.

Txostenean, honako informazio hau jaso dugu:

- Hasieran, ebaluazioa lantzeko erabili dugun **metodologia eta Planaren ezaugarri nagusiak** jaso ditugu.
- Ondoren, **Planaren betetze-maila** neurtu dugu, hau da, aurreikusten ziren ekintzak bete diren edo ez, eta, bete ez badira, zergatik.
- Betetze-mailaz gain, **eraginkortasuna** ere aztertu dugu, hots, benetan egin diren ekintzen ondorioz gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak gutxitu diren edo ez ebaluatu dugu.
- Bestalde, **Planean zein eragilek parte hartu** duten eta zenbateko inplikazioa eta parte-hartzea izan duten neurtu dugu, jakiteko zenbateraino errotu diren Plana eta berdintasunaren aldeko politikak garatzeko egiturak.
- **Planak izan dituen baliabideak** ere jaso ditugu, bai baliabide materialak bai pertsonen dagozkienak ere.
- Ebaluazioaren atala amaitzeko, **ebaluazioaren emaitza edo ondorio nagusiak** jaso ditugu.
- Txostenean, azkenik, **datozen urteetako berdintasunaren aldeko politikak eta ekimenak garatzeko proposatzen diren lan-ildoak** jaso ditugu.



### 2.1. Ebaluazio-prozesuaren ezaugarri nagusiak

Egitasmoa garatzeko zein metodologia eta teknika erabili dugun azaltzeko, garrantzitsua da egitasmoaren helburuak gogora ekartzea. Hona hemen, egitasmoa abiatu aurretik, landutako helburuak.

**Orokorra: Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa egitea, egungo egoeraren gakoak identifikatzea eta II. Plana diseinatzea.**

#### Zehatzak:

- Lezoko Berdintasunerako I. Planean jasotako helburu eta neurrien betetze-maila aztertzea, alegia, Plana bera zenbateraino gauzatu den jakitea.
- Egindako ekintzen bidez helburuak lortu diren aztertzea. Ekintzek nolako inpaktu edo eragina izan duten eta haien bidez Planean jasotako helburuak lortu diren edo helburuetara hurbildu garen aztertzea, hots, berdintasuna sustatzeko eta ezberdintasun/diskriminazio-egoerak gainditzeko emandako urratsen eragina ebaluatzea.
- Udaleko arloek eta sailek genero-ikuspegiarekin lan egiten duten aztertzea, hau da, zenbateraino daukaten aukera-berdintasuna txertatuta beren lan-ildoetan, funtzionamenduan eta egituretan. Halaber, genero-ikuspegiarekin lan egiteko zer-nolako iragazkortasuna daukaten ezagutzea.
- Aurrera begirako lan-ildoak eta lan-tresnak zehazteko, informazio baliagarria eskuratzea: aurrera begira zer alderdi kontuan hartu, egokitu eta landu behar diren identifikatzea.

Ebaluazioaren bidez, beraz, honako informazio hau jaso nahi izan dugu:

- Planean jasotako ekintzen artean, zenbat egin diren eta zenbateraino gauzatu diren.



- Egindako eta egin gabeko ekintzen tipologia zein den (zein arlotakoak diren, zer ezaugarri dituzten, etab.).
- Ekintza jakin batzuk zergatik ez diren martxan jarri (lehentasunik eman ez zaielako, ekintzen egokitasuna zalantzan jarri delako, baliabiderik izan ez delako...).
- Planak eta horretako ekimenek izan duten inpaktuaren inguruan zein balorazio egin den.
- Planak eragindako eragileak zenbateraino inplikatu diren, eta planean aurreikusitako egiturak zenbateraino errotu diren.
- Plana garatzeko zer-nolako giza eta material-baliabideak erabili diren.

**Ebaluazioa egiteko**, gainera, Emakunderen Berdintasunerako VI. Planak **hainbat jarraibide** ematen ditu, eta oso kontuan eduki behar ditugu planaren ebaluazio-, diseinu- zein garapen-faseetan. Ebaluazio-prozesuak hainbat estrategia konbinatu beharko lituzke gai batzuei buruz gogoeta egiteko:

Betetze-mailaren ebaluazioa

- Koherentziaren ebaluazioa: metodologia kualitatibo baten bidez neurtuko da, eta sailtako politiken kontzeptuzko dimentsioari eta erralitateari helduko die. Ekintzen gauzatze-maila aztertzeaz gain, eduki politikoak balioetsi eta ekintzen kalitateari eta aldatzeko gaitasunari buruzko hausnarketa jasoko ditu.
- Prozesuaren ebaluazioa: Planaren ezarpen-prozesua eta hedapena aztertzea izango du helburu, eta parte hartu duten eragileen balioespenei erreparatuko die, batez ere, ikuspegi pluralista batetik: laguntzeko jarritako baliabideak egokiak eta erabilgarriak iruditu zaizkien. Horrenbestez, ebaluazio-mota honek ikastea eta hobetzea ditu ardatz, eta aukera ematen du erabakiak hartzeko garrantzitsuak diren alderdi kualitatiboak aztertzeko.



- Eraginaren ebaluazioa: berdintasunerako politiken eragina aztertuko du, bai espero diren eraginak, bai espero ez direnak. Honako galdera hauei erantzungo die: nolako aldaketa gertatu da berdintasunerako politiken helburu diren kolektiboaren egoeran? Zenbateraino aldatu da emakumeen eta gizonen arteko aldea gizartean? Zer-nolako eragina izan dute helburu ez diren kolektiboetan?

### 2.2. Oinarri metodologikoak

Prozesua metodologikoki diseinatzeko, **IAP** (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) deritzon **metodologiaren oinarriak** hartu ditugu kontuan. Xedea izan da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta, prozesu horien bidez, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea, harremanak aldatzeaz gainera.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei **gizarte-sareak berreraikitzeo aukera** ematen die, alegia, hausnarketaren bidez gizarte-sare horiek aldatzeko aukera. Gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: **dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika bereziak erabiltzen ditu.**

Prozesua garatzeko, Elhuyar Aholkularitzak honako **oinarriak** edo **printzipio** hauek izan ditu kontuan:

- **Parte-hartzea:** parte-hartzea ez dugu informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatu, gauzak ezagutu, elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen baita guretzat benetako parte-hartzea. Uneko errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortzen ahalegindu gara, eta lan-prozesua bera izan da horretarako bidea. Generoaren inguruko gaien inguruan hausnarketa egin eta eztabaidatzea izan da prozesu honen xedea, emakumeen beharrak, zailtasunak eta nahiak eraikuntza kolektiboaren bidez definitzea. Bidean, parte-hartzaileek prozesua bere egitea izan da asmoa.
- **Malgutasuna:** oinarria pertsonekin lan egitea izan denez, prozesuak iraun duen bitartean parte-hartzaileek aukera izan dute beharrezko iruditu zaizkien





aldaketak/moldaketak proposatzeko. Egokitzat jo badira, prozesuari egokitzapenak egin zaizkio.

- **Komunikazioa:** komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan, eta komunikazioa bermatzeko neurriak hartu dira prozesu osoan zehar: eragile desberdinei asmoen berri emateko, prozesuan parte har zezaten gonbidatzeko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab.
- **Hezkuntza-prozesua:** partaidetza-prozesu honek eraldaketa- eta hezkuntza-prozesu izatea zuen helburu. Emaitzei garrantzia emateaz gainera, prozesuari berari protagonismo berezia eman nahi izan diogu, eta parte hartu dugun guztiok (norbanako, talde eta erakundeek) ikasi dugu prozesutik, batak bestearengandik jaso eta elikatu dugu ezagutza.
- **Subjektibitatea:** prozesuaren ardatza pertsonak dira eta, horregatik, pisu nabarmena eman zaio pertsona arteko harremanak lantzeari ere; besteak beste, denbora hartu da taldeetako kideek elkar ezagut zezaten, batzar dinamikoak egin nahi izan dira, kideen arteko giroa landu, etab.
- **Hizkuntzen erabilera:** EAEn euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira, eta euskara Erkidegoko berezko hizkuntza da. Lezoko Udala EAEko administrazio publikoa denez eta euskararen aldeko politika martxan duela aintzat hartuta, bere egitasmoetan euskararen erabilera zaintzen du. Hori dela eta, prozesuan euskaraz lan egin da, horretarako baldintza betetzen zenean, hots, une bakoitzean parte hartzen zutenek euskaraz jakin edo ulertzen zutenean. Baldintza hori betetzen ez zenean, aldiz, bi hizkuntzak modu egokian erabiltzeko neurriak adostu dira taldean. Emaitzei buruzko txosten hau euskaraz eta gaztelaniaz idatzi da, baita eranskina ere.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna:** egitasmoak genero-ikuspegia bermatzea zuen helburu ezinbestean, bai prozesuaren ikuspegitik eta baita emaitzaren ikuspegitik ere. Hala, emaitzaren ikuspegitik, emakumezkoen interesak, nahiak, ikuspegiak, arazoak, proposamenak, irtenbideak... modu



espezifikoan jaso ditugu; prozesuaren ikuspegitik, berriz, bitartekoak jarri ditugu emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta ahalduntzea indartzeko.

### 2.3. Prozesuaren faseak

Metodologiaren ikuspegitik, hiru fase izan ditu egitasmoak:

- Aurrelanen fasea.
- I. Berdintasunerako Planaren ebaluazio fasea
- II. Berdintasunerako Planaren diseinu fasea

#### 2.3.1. Aurrelanak: lan-baldintza egokiak sortzea

Aurrelanetan, egitasmoa martxan jarri aurretik egin beharreko lanak jaso ditugu.

##### Talde eragilea osatzea

Talde Eragilea osatu dugu, prozesua martxan jarri eta segimendua egiteko.

Talde Eragilean, Lezoko Berdintasuneko ordezkari politikoa, alkatea, Udaleko arduradun teknikoa, Ongizateko arduraduna eta Elhuyar Aholkularitzako bi teknikari elkartu dira, proiektuarekin lotutakoa erabakiak hartu eta ekintza guztiak koordinatzeko.

Lehendabiziko bileraren helburu nagusia prozesua antolatu, komunikazio-plana diseinatu, ebaluazioa egiteko beharrezko dokumentazioa bildu eta lantaldeak osatzeko egin beharreko lanak zehaztea izan zen.

##### Prozesuan parte hartuko zuten lantaldeak osatzea

Lehen aipatu bezala, prozesu osoa aurrera eramateko, hiru esparrutan lan egin dugu (antolamenduaren atalean zehazten dira talde hauen funtzioak eta osaera):

- Herritarrekin
- Udaleko zenbait arlotako teknikariek



- Ordezkarri politikoekin

### **Komunikazio-plana diseinatzea eta garatzea**

Prozesu osoari ekin aurretik, oso garrantzitsua izan da alde aurretik lantzea prozesuan zehar komunikazio egokia egiteko modua. Horretarako, komunikazio-plana diseinatu dugu, komunikazioa ondo lantzea erabakigarria baita prozesuak arrakasta izan dezan.

Komunikazio-planaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Prozesuan parte hartzeko interesa izan zezakeen jendeari egitasmoaren berri ematea, eta parte har dezaten sustatzea.
- Herritarrei, oro har, egitasmoaren berri ematea, eta parte har dezaten sustatzea —baita horretarako zer bide erabil dezaketen adieraztea ere—.
- Komunikazio-planean jaso da une bakoitzean eragile bakoitzari zer mezu bidali behar zaion eta zer bide erabiliko den. Elhuyar Aholkularitzak lagundu dio Lezoko Udalarri komunikazio-ekintzak aurrera eramaten.

### **2.3.2. Berdintasunerako Planaren ebaluazioa**

Lezoko berdintasunaren errealitatea ahalik eta modurik zabalenean aztertzen ahalegindu gara, ikuspegi sozial, tekniko eta politikotik, alegia. Horretarako, informazio kualitatibo zein kuantitatiboa jaso dugu, ondorengo bideak jarraituz:

- **Informazio- eta datu-bilketa dokumentala.** Hainbat dokumentu bildu ditugu: Lezoko Berdintasunerako I. Plana, Lezoko Emakume Eta Gizonen Egoerari Buruzko Diagnostikoa eta Oarsoaldeko Berdintasun Mahaiaren Ekintzen Memoria. Kasu honetan, ezinezkoa izan zaigu Planaren urtez urteko kudeaketa-planak eta horien memoriak aztertzea, Udalean inor ez baita arduratu horiek egiteaz, eta, beraz, ez baitago halakorik.



- **Tailerrak edo lan-saioak:** saiatu gara orain arte Plana garatzen parte hartu beharko zuketuen eragileekin egiten gogoeta, nahiz eta herritarren aldetik ez dugun erantzunik jaso.

Hauek ziren eragileekin egin beharreko saio-kopuruak:

Herritarrekin

2 tailer

Udal-teknikariekin

2 tailer

Ordezkarri politikoekin

1 tailer

- **Herritarrekin:** herritarrekin bi lan-saio egiteko deialdia egin da: bata, martxoaren 10erako, eta, bestea, 31rako. Bi lan-saioetan, pertsona bakar bat baino ez da etorri, bi kasuetan berbera: herriko Gaxuxa Emakume Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide bat. Egoera horren aurrean, lan-saioa bertan bera uztea erabaki da. Lehenengo saioaren ostean deialdia herritarren artean zabaltzeko komunikazio-ekintza berriak erabaki ziren arren, ez zen lortu bigarreneira jende gehiago etortzea. Zehazki, hauek izan dira lehen eta bigarren saioetarako egindako komunikazio-ekintzak:

### Martxoaren 10eko saioa:

- Pentsaurrekoa, Berdintasunerako II. Planaren berri emateko (martxoak 4an).
  - Pentsan izandako oihartzuna:
    - Herritarrak oinarri hartuta diseinatu nahi du Berdintasunerako Plana Lezoko Udalak
- <http://oarsobidasoa.hitza.info/2014/03/04/herritarrak-oinarri-hartuta-diseinatu-nahi-du-berdintasun-plana-lezoko-udalak/>
  - Lezo abordará la elaboración del II. Plan de Igualdad
- <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2014/03/05/vecinos/oarsoaldea/lezo-aborda-la-elaboracion-del-ii-plan-de-igualdad>



- El II Plan de Igualdad busca ideas ciudadanas
- <http://www.diariovasco.com/v/20140305/pasaia-errenteria/plan-igualdad-busca-ideas-20140305.html>
- Lezoko webgunean sarrera
- Berdintasunerako II. Plana herritarrekin elkarlanean egingo da
- <http://www.lezo.net/albisteak/gizartea/16687>
- Lezoko Udaleko sare sozialen bidez, bileraren berri eman da, eta herritarrak parte hartzera gonbidatu dira:
  - FB eta TW bidez
- Bileran parte hartzeko interesa izan dezaketen herritarrak identifikatu ondoren, Ainhoa Zabalo Lezoko alkateak telefono-deiak egin ditu bertara joan daitezen animatuz.

### **Martxoaren 31ko saioa:**

- Lezoko webgunean sarrera.
- Berdintasunerako Plana diseinatzeko bilera irekia. Naiara Arriri elkarrizketa.
- <http://www.lezo.net/albisteak/16746>
- Komunikabideetara prentsa-oharra bidali da.
- La segunda reunión del Plan de Igualdad se desplaza al día 31.
- <http://www.diariovasco.com/v/20140322/pasaia-errenteria/segunda-reunion-plan-igualdad-20140322.html>
- Naiara Arri, Berdintasun-teknikaria: “Berdintasuna guztioi eragiten digun gaia da, eta denok dugu gai honetan zer hausnartua”



## 2. Prozesua eta metodologia

- <http://oarsobidasoa.hitza.info/2014/03/27/naiara-arri-berdintasun-teknikaria-berdintasuna-guztioi-eragiten-digun-gaia-da-eta-denok-dugu-gai-honetan-zer-hausnartua/>
- Informazioa sare sozialetan zabaldu da.
  - FB eta TW.
- Info7 irratian iragarki laburra.
- Herriko elkarteei mailing-a bidali zaie, alkatearen izenean eta bileran parte hartzeko eskatuz.
  - HTMLa bidali da.
- Liburuxkak banatu ditugu herriko saltoki eta tabernetan.
- Ainhoa Zabalo alkatea eta Mikel Arruti Kultura-zinegotziak eskuliburuak banatu dituzte herritarren artean.
- Autodefentsa-ikastaroan eskuliburuak banatu dira, bileran parte hartzeko eskatuz.



→ **Udal-teknikariek:** bi saioetan, zazpi udal-teknikarik parte hartu dute.

PARTE-HARTZAILEAK	LANDURIKO EDUKIAK
<p><b>DAMI MUÑOZ</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ongizateko arduraduna</li></ul> <p><b>JOXEMARI IRAOLA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntza-dinamizatzailea</li></ul> <p><b>XANTI VAL</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kultura-teknikaria</li></ul> <p><b>XANTI ESPINA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Musika Eskolako zuzendaria</li></ul> <p><b>SEGUNDO A. GARBIZU</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Udaltzainburua</li></ul> <p><b>ARAITZ ANGIOZAR</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kirol Instalazioetako zuzendaria</li></ul> <p><b>XABIER LOIOLA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Idazkaria</li></ul>	<p><b>1. SAIOA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Prozesuaren nondik norakoak</li><li>• Oinarrizko kontzeptuak: ekintza positiboa, zeharkako diskriminazioa, ahalduntzea...</li><li>• Arloz arloko helburu eta ekintzen ebaluazioa</li><li>• Saioaren balorazioa</li></ul> <p><b>2. SAIOA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Berdintasunerako Planen egitura; Emakunderen VI. Plana, Gipuzkoako Foru Aldundia..</li><li>• Sail arteko lana. Sail bakoitzaren diagnostikoa</li><li>• Etorkizuneko erronkak sailez sail</li><li>• Saioaren balorazioa</li></ul>

Udaleko sail guztietako arduradunek parte hartu dute, Kontu Hartzailera eta Hirigintza sailek izan ezik. Kontu-hartzailea lehen saiora etorri zen, baina hasi bezain laster joan zen, eta ez zen gehiago azaldu. Bestalde, Hirigintzari dagokionez,



teknikariaren lanpostua hutsik gelditu da eszedentzia bat dela medio, eta ordezkoa hautatzeko prozesuan murgildurik dago Udala.

- **Ordezkarri politikoekin:** ebaluazio-fasean, bilera bakarra egin da udal-taldearekin. Guztira, udal-taldea hamahiru pertsonen osatua dagoen arren, zazpi baino ez dute parte hartu.

PARTE-HARTZAILEAK	LANDURIKO EDUKIAK
<b>AINHOA ZABALO</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Alkatea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prozesuaren nondik norakoak</li><li>• Oinarrizko kontzeptuak</li><li>• Ebaluazioko emaitzen aurkezpena</li><li>• Ondorioak</li><li>• Udalaren etorkizuneko erronkak</li><li>• Balorazioa</li></ul>
<b>NAROA TUBILLA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zinegotzia</li></ul>	
<b>LUIS GARRIDO</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zinegotzia</li></ul>	
<b>ENRIQUE FIGUEROA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zinegotzia</li></ul>	
<b>KEPA GARBIZU</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zinegotzia</li></ul>	
<b>MIKEL ARRUTI</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zinegotzia</li></ul>	
<b>GARAZI CUESTA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zinegotzia</li></ul>	





### 2.3.3. II. Berdintasun Planaren diseinua

I. Berdintasun Planaren ebaluaziotik ateratako ondorio nagusietan oinarrituz, aurrerantzean ze ildo eta lan egin beharko liratekeen ikusi dugu. Horretarako, aurreko fasean sortutako lantalde berdinekin tailerrak eginez. Herritarren lantaldeak berriz ere arrakastarik izan ez duenez, Udal-teknikariekin 2 tailer egin ditugu bakarra egin beharrean.

Tailer hauek izan dira II. Berdintasun Planaren diseinuaren oinarria.

- **Berdintasun Planaren txostena erredaktatzea**

Lantaldeekin tailerrak egin ostean, euren ekarpenak, ideiak eta iritziak jasota, horiek guztiak teknikoki bideratu ditugu eta Berdintasun Plana diseinatu dugu.

Diseinu-fase honen emaitza nagusia Lezoko Udalaren Berdintasunerako II. Plana izan da.

Aipatu beharrekoa da, fase honetan teknikarien lantaldearekin lan egitea baino ez dela posible izan eta ordezkari politikoekin mezu bidez bideratu behar izan direla ekarpenak.

Hona parte-hartzaileen inguruko datuak:



### PARTE-HARTZAILEAK

#### DAMI MUÑOZ

- Ongizateko arduraduna

#### JOXEMARI IRAOLA

- Hizkuntza-dinamizatzailea

#### XANTI VAL

- Kultura-teknikaria

#### XANTI ESPINA

- Musika Eskolako zuzendaria

#### SEGUNDO A. GARBIZU

- Udaltzainburua

#### ARAITZ ANGIOZAR

- Kirol Instalazioetako zuzendaria

#### XABIER LOIOLA

- Idazkaria

#### KETXUS PONCE

- Brigada-burua

#### NEKANE ORBEGOZO

- Hirigintza teknikaria

### LANDURIKO EDUKIAK

#### 3. SAIOA:

- Planean landuko ditugun lan-ildo nagusiak eta proposatzen dugun egituraren kontrastea
- Gobernantza lantzeko proposatzen ditugun ekintzak kontrastatzea

Gainontzeko lan-ildoetan markatu diren helburuak kontutan izanik, ekintzak proposatzea

#### 4. SAIOA:

- Galdetegietatik lortu ditugun emaitzak sozializatzea
- Planean landuko ditugun lan-ildo nagusiak eta proposatzen dugun egituraren kontrastea
- Gainontzeko lan-ildoetan markatu diren helburuak kontutan izanik, ekintzak proposatzea



### 2.4. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

Egitasmoa aurkeztutakoan, erabaki zen prozesuaren ondorengo alderdiak jaso eta baloratuko zirela. Helburua da, planaz gainera, prozesua bera ebaluatzea:

- **Ebaluaziorako Udalak eskuragarri jarri dituen dokumentuak:**

→ Lezoko Berdintasunerako I. Plana

→ Lezoko Emakume Eta Gizonen Egoerari buruzko Diagnostikoa

→ Oarsoaldeko Berdintasun Mahairen bidez egindako ekintzen memoria

Kasu honetan, ezinezkoa izan zaigu Planaren urtez urteko kudeaketa-planak eta horien memoriak aztertzea, Udalean inor ez baita arduratu horiek egiteaz, eta, beraz, ez baitago halakorik. Gauza bera gertatu da egindako programa eta ekintzekin, I. Plana 2011. urtean onartu ostean inor ez baita arduratu Plana garatu eta jarraipena egiteaz.





- Ebaluazio-prozesuan **parte hartu duen pertsona-kopurua**, sexuaren arabera bereizita.

LAN-TALDEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Teknikariak	1	6	7
Ordezkeri politikoak	3	4	7
GUZTIRA	4	10	14

- **Ebaluazio-prozesuko lan-saioretako parte-hartzaileek egin dituzten balorazio eta ekarpenak:**

## 2.Prozesua eta metodologia

### Teknikariek in egindako 1. saioa. Balorazioa:

					OHARRAK Notas:
EDUKIAK		XX	XXXX		
ASISTENTZIA	XXX	XXX			
BILERAREN IRAUPENA			XXXXXX		
METODOLOGIA	X	X	XXX	X	
PARTE-HARTZEA		XX	XXX	X	
GIROA		XX	X	XXX	



INDARGUNEAK	AHULEZIAK	ETORKIZUNEKO ERRONKAK
<p><b>BALIABIDEAK</b> ❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Mankomunitate mailako baliabideak erabil litezke, berdintasun-teknikari propioa izan ez arren?</li></ul> <p><b>UDALA BERDINTASUNAREN ERAGILE</b>❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• (Kultura) Elkarteei diru-laguntzak ematean kontuan hartzea parte hartzeko aukera-berdintasuna</li><li>• (GGZZ) Pleguetan berdintasun-irizpidea txertatzeko lanketa egiten ari dira</li><li>• Oarsoaldeko Berdintasunaren Mahaian parte hartzen du Udalak</li></ul> <p><b>BATERAGARRITASUNA</b> ❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zerbitzuak pertsonetara egokitzeko joera</li><li>• Kanpora zein barnera begira, pertsonen beharretara egokitzeko aukerak eskaintzen dira, nahiz eta ez</li></ul>	<p><b>BALIABIDEAK</b> ❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Erreferente baten beharra sumatzen da. Urte bukaeran, memoria edo balorazioa egin beharko da.</li><li>• Planifikazioa eta horren jarraipena beharrezkoak dira.</li></ul> <p><b>TREBAKUNTZA</b> ❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Formakuntza falta; orain arte, gai ezezaguna izan da</li><li>• Maskulinitateak landu behar dira</li></ul> <p><b>SISTEMATIZAZIOA</b>❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kirolean sistematizatu egin behar da genero-ikuspegia</li><li>• Ikasi behar da parte-hartze prozesuetan nola hartzen den kontuan ikuspegi hori</li></ul>	<p><b>TREBAKUNTZA</b> ❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Berdintasunaren gaian trebatzea</li></ul> <p><b>TRESNAK</b>❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Aplikazio informatikoak prestatzea</li></ul> <p><b>MOTIBAZIOA</b>❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ideologikoki egin dira orain artekoak, erreferente barik eta intuizioz. Udalean, gauza asko egiten dira hala aginduta daudelako. Horretarako gaitasuna badago beste gaitetan, eta honetan ere hala beharko luke.</li></ul> <p><b>BALIABIDEAK</b>❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Gaur egun, ez dago azpiegiturarik Plana aurrera eramane eta jarraipena egiteko (baliabide nahiko izateko bideak landu behar da).</li><li>• Teknikaririk izan ez arren,</li></ul>



INDARGUNEAK	AHULEZIAK	ETORKIZUNEKO ERRONKAK
<p>dagoen inongo irizpiderik markatuta</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ludoteka-zerbitzua irekita baldin badago, bileretan eta antzekoetan erabiltzen da</li></ul> <p><b>GENERO-IKUSPEGIA</b> <b>TXERTATZEA</b>❖</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Arlo batzuetan, datuak sexuaren arabera bereizita jasotzen dira, nahiz eta gero ez erabili (aurreko planeko diagnostikoa lantzeko tailerren ondorioz)</li><li>• Eskola-kirolean kontuan hartzen da genero-ikuspegia</li><li>• Gimnasioaren antolaketan kontuan hartu izan da genero-ikuspegia</li></ul>		<p>erreferenteak izateko bestelako bideak landu beharra dago.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ardurak zehaztu behar dira.</li></ul>



## 2. Prozesua eta metodologia

Teknikariekin egindako 2. saioa. Balorazioa:





### Teknikariekin egindako 2. saioa. Emaiza:

#### SAILA: MUSIKA-ESKOLA

<b>ZERBITZUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Musika-eskolak</li><li>→ Musika-jarduerak</li><li>→ Tresnen alokairua</li><li>→ Ikastaro trinkoak</li><li>→ Instalazioen erabilpena</li><li>→ Bekak (hobariak)</li></ul>
<b>LANGILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ 14 irakasle (2 ikastaro trinkoetakoak): 7 emakumezko eta 7 gizonezko</li><li>→ Administrari bat (emakumezkoa)</li><li>→ Garbitzaile bat (emakumezkoa)</li></ul>
<b>ARDURA-POSTUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Zuzendaria (gizonezkoa)</li></ul>
<b>PARTE HARTZEKO ORGANOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Klaustroa (7 gizonezko eta 5 emakumezko)</li><li>→ Eskola Kontseilua (1 emakumezko eta 5 gizonezko)</li></ul>
<b>KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Ez, ikastaroa bai</li></ul>
<b>ERABILTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ 278 ikasle ofizial: 146 neska eta 132 mutil</li><li>→ 79 atxikitako ikasle: 46 neska eta 33 mutil</li></ul>





<b>SAILA: UDALTZAINGOA</b>	
<b>ZERBITZUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Ekitaldiak (kultura, kirolak...)</li><li>→ Ordenantzak (merkatu txikia, obrak...)</li><li>→ Trafikoa (eskolakoa...)</li><li>→ Arreta ematea (kexak, laguntza...)</li><li>→ Larrialdietako laguntza (istripuak...)</li></ul>
<b>LANGILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ 5 gizonetzko (funtzionarioak)</li><li>→ 2 emakumezko (bitartekoak)</li><li>→ 1 administrari (emakumezkoa)</li></ul>
<b>ARDURA-POSTUAK</b>	→ Administraria (emakumezkoa) eta zuzendaria (gizonezkoa)
<b>PARTE HARTZEKO ORGANOAK</b>	→ SKB
<b>KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZAK</b>	→ Ez
<b>ERABILTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Zerbitzu-mota bakoitzaren erabiltzaileak</li><li>→ Gizonezkoak / emakumezkoak</li></ul>
<b>EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Arreta: bideratzea (Ertzaintzari-Ongizateari jakinaraztea)</li><li>→ Indarkeria kasuetarako tokiko protokolorik ez</li><li>→ Datuak: kopurua bai (zenbatekoa)</li><li>→ Beste sailekin koordinaziorik ez: Ertzaintza eta Ongizate sailarekin behintzat koordinaziorako bilerak egin beharra antzematen da.</li></ul>



### SAILA: IDAZKARITZA

#### ZERBITZUAK

- Udal-dokumentuen erregistroa
- Biztanle-errolda
- Garaje-zerrendak
- Ondare-erantzukizuna
- Pertsonal-kontratazioa (barne)
- TGB
- Osoko bilkurak
- Dekretu-liburura
- Kontratazioak
  - ❖ Bake Epaitegia
  - ❖ Komunikazio-taldea

#### LANGILEAK

- 5 langile: 3 emakumezko eta 2 gizonezko

#### ARDURA-POSTUAK

- 2, biak gizonezkoak

#### PARTE HARTZEKO ORGANOAK

- Langile Komiteko 5 lagun (2 emakumezko eta 3 gizonezko)
- Barne Batzordeko 6 lagun (1 emakumezko eta 5 gizonezko)

#### KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Kontratu zuzenak
- Azpikontratuak; informatika, telefonoa eta lan-arriskuen prebentzioa



### SAILA: IDAZKARITZA

#### ERABILTZAILEAK

→ Zerbitzu-mota bakoitzaren erabiltzaileak

#### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

→ Arreta: bideratzea (Ertzaintzari-Ongizateari jakinaraztea)

→ Indarkeria kasuetarako tokiko protokolorik ez

→ Datuak: kopurua bai (zenbatekoa)

→ Beste sailekin koordinaziorik ez: Ertzaintza eta Ongizate sailarekin behintzat koordinaziorako bilerak egin beharra antzematen da.

### SAILA: KULTURA

#### ZERBITZUAK

→ Diru-laguntzak

→ Kultura-jardueren antolaketa

→ Hitzarmenak

→ Ludoteka

→ Udalekuak

→ Jaien antolaketa

→ Argitalpenak

→ Liburutegia



<b>SAILA: KULTURA</b>	
<b>LANGILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ 1 liburuzaina (gizonezkoa)</li><li>→ 1 kirol-teknikaria (gizonezkoa)</li><li>→ 1 euskara-teknikaria (gizonezkoa)</li><li>→ 1 administraria (emakumezkoa)</li><li>→ Guztira 4 langile: 3 gizon eta emakume bakarra</li></ul>
<b>ARDURA-POSTUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ 4 gizonezko</li></ul>
<b>PARTE HARTZEKO ORGANOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Kultura Batzordea: zinegotziak (gizonezkoa + emakumezkoa) + teknikaria (gizonezkoa)</li><li>→ Jai Batzordea: politikariak (gizonezkoak) + teknikaria (gizonezkoa) + kultura-elkarteak (auskalo)</li><li>→ Eskola Kontseilua (1 emakumezko eta 5 gizonezko)</li></ul>
<b>KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Ludoteka eta udalekuak</li><li>→ Hitzarmena elkarrekin</li></ul>
<b>ERABILTZAILAK</b>	Zerbitzu bakoitzean: haurrak-helduak Neska – emakumezkoak eta mutil-gizonezkoak modu bertsuan



<b>SAILA: ONGIZATEA</b>	
<b>ZERBITZUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Etxez etxeko laguntza-zerbitzua</li><li>→ Sendian</li><li>→ Kale-hezitzaileak</li><li>→ Familiako esku-hartzea</li><li>→ Aiton Borda</li></ul>
<b>LANGILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Ongizate: 4 + 5 laguntzaile = 9 emakumezko</li><li>→ 3 kale-hezitzaile: 1 emakumezko eta 2 gizonezko</li><li>→ 4 familiako hezitzaile: 2 emakumezko eta 2 gizonezko</li><li>→ Aiton Borda, kanpoko langile bat, emakumezkoa.</li></ul>
<b>ARDURA- POSTUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Ongizateko 1, emakumezkoa</li><li>→ 1 kale-hezitzaile, gizonezkoa</li><li>→ 1 familiako esku-hartze, emakumezkoa</li><li>→ Aiton Bordako 2 lagun: tabernaria, emakumezkoa, eta elkarteburua, gizonezkoa</li></ul>
<b>PARTE HARTZEKO ORGANOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Ongizate Batzordea: 3 gizonezko (zinegotziak), 3 emakumezko (politikariak + gizarte-langilea) eta herritarrak (gehienak, emakumezkoak)</li></ul>
<b>KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU- LAGUNTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>→ Aiton Borda, kontratua du</li><li>→ Kale-hezitzaileak, kontratua du</li><li>→ Familiako esku-hartzea, kontratua du</li><li>→ Gasusa, diru-laguntza jasotzen du</li><li>→ Aiton Borda (elkartea), diru-laguntza jasotzen du</li></ul>



### **ERABILTZAILEAK**

- Etxez etxeko laguntza. Gehiengoa, 80 urtetik gorako emakumezkoak.
- Departamentuan: ez dago perfil zehatzik (gazteak, adinekoak, gizonezkoak, emakumezkoak...)





### **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA**

- Asko igo da, azken urtean, indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumeentzako baliabideen berri izatera etorri den emakume-kopurua: urtean 10-12 inguru
- Kontsulta egitera etorritako emakumeen profila hau da: 40 urtetik gorakoak eta etxetik kanpo lanik egiten ez dutenak.



## 2. Prozesua eta metodologia

### Udal-ordezkariekin egindako 1. saioa. Balorazioa:

					OHARRAK Notas:
ASISTENTZIA	xxxx	xxxx			
PARTE-HARTZEA		xx	xxx	xxx	
EDUKIAK			xxxxx	x	
EMAITZA		xxxx	x	x	
METODOLOGIA			xxxx	xx	
TOKIA		x	xxx	xxx	
GIROA			x	xxxxxx	
IRAUPENA			xxxx	xxx	



### Udal-ordezkariekin egindako 1. saioa. Emaiza:

Ebaluazioaren emaitzak aurkeztu ostean, lan-taldetan bildu, eta erronkak identifikatzeko eskatu genien. Hauek izan ziren jasotako ideiak:

- Berdintasunerako Plana aurrera eramateko: Plan berriaren jarraipena egin beharko du Udalak, eta baita herri-eragileek ere. Bestalde, Plana garatzeko baliabideak ugaritzeko aukera aztertu beharra dago.
- Herriko kolektiboekin berdintasunaren gaia lantzeko sentsibilizazio-saioak: hurrekin (eskola edo ludotekaren eta udalekuen bidez), aiton-amonekin, gazteekin (Kuadrilategiren bidez, adibidez).
- Ekintza positibo gehiago egin behar dira.





## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

- Lezoko Udalak 2011n izan zuen lehen ekimena udalerrirako berdintasun-plan bat lantzeko, eta orduan hasi ziren ezartzen gaur arte Lezoko Udalak martxan dituen berdintasun-politiken oinarriak.
- Plana landu zen garaian, indarrean zegoen EAEko Berdintasunerako IV. Plana eta haren arabera landu zen Lezokoa ere, EAEkoak eskaintzen zuen erreferentziazko markoa erabiliz. Hala, Emakunderen IV. Planak jasotzen dituen ardatzak eta esku-hartzeko eremuak izan dira Plana egituratzeko irizpideak.
- Lezoko Berdintasunerako I. Plana arloka dago antolatuta. Arlo bakoitzaren barnean, helburu batzuk zehazten ziren, hain justu, EAEko Emakume eta Gizonen IV. Planeko 4 ardatzen arabera (mainstreaminga, ahalduntzea, bateragarritasuna eta erantzukidetasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria).

LEZOKO BERDINTASUNERAKO I. UDAL-PLANA	
ARDATZAK	PLANAREN ARLOAK
→ Mainstreaminga	→ Neurri orokorrak
→ Ahalduntzea	→ Hirigintza eta ingurumena
→ Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	→ Lana
→ Emakumeen aurkako indarkeria	→ Gizarteratzea eta osasuna
	→ Kultura
	→ Kirola
	→ Hezkuntza

- Planaren helburuak, beraz, ardatzekin eta planaren arloekin lotuta daude. Planaren arloak, jarduera-eremu gisa ulertu behar ditugu; ardatzak, berriz, berdintasunaren aldeko politikak garatzeko estrategia gisa.



## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

- Estrategiaren eremuan, hortaz, Plana lau estrategia nagusi hauen inguruan dago egituratuta:

PLANAREN ARDATZAK	ZER DA?
<b>Mainstreaminga</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Politika publikoetan genero-ikuspegia integratzea. Genero-ikuspegia integratzen badugu, esku-hartze publikoan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta premiak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu.</li> </ul>
<b>Ahalduntzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ardatz hau emakumeen kontzientziazio-prozesuekin lotuta dago (banakakoa eta taldekoa). Emakumeak gizarte-, politika- eta ekonomia-alorretan indartzea beharrezkoa da aukera-berdintasuna lortzeko. Emakumeak kanpoan uzten ez dituen botere-eredu berri bat eraikitzea da ardatz honen azken helburua</li> </ul>
<b>Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitzaren maila guztiak harmonizatzea du helburu ardatz honek, horretarako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuz. Nola? <ul style="list-style-type: none"> <li>→ etxeko lanetan gizonak erantzunkide izan daitezen bultzatuta;</li> <li>→ enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharretara egokituta;</li> <li>→ eta zerbitzu soziosanitarioak eta laguntza ekonomikoak egokituta.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Emakumeen aurkako indarkeria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrienetako bat da emakumeen aurkako indarkeria. Giza eskubideen urraketa larri eta onartezina da, eta, hura desagerrarazteko, ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea.</li> </ul>

- Planean 7 arlo bereizten ziren: neurri orokorrak, hirigintza eta ingurumena, lana, gizarteratzea eta osasuna, kultura, kirola eta hezkuntza. Arlo



# 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

bakoitzaren barruan, ardatz bakoitzari zegozkion zenbait helburu operatibo landu ziren, baita horietako bakoitza lortzeko urratsak edo ekintzak ere.

- Esku hartzeko eremuak aztertuta, honako hauek dira **Planak jaso dituen helburu operatiboak** (betiere, proposatutako lau estrategia horiei lotutakoak):

1. ZERBITZU OROKORRAK	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
Mainstreaminga	→ ZO.M.1 Pixkanaka departamentu guztietako ikerketa eta estatistikak genero-ikuspegira egokitzea
	→ ZO.M.2 Pertsonal tekniko eta politikoari formakuntzaren inguruko baliabideak ematea. Berdintasun gaietan trebatzea
	→ ZO.M.3 Departamentu guztietatik, genero perspektiba batetik eginiko ekintza, programa, ... exekuzio eta planifikaziorako behar dira errekursoak martxan jartzea.
Ahalduntzea	→ ZO.A.1 Administrazio barruko prozesua areagotu eta handitzea, emakumeek beraien egoera eta posizioak hobetzeko.
	→ ZO.A.2 Emakumeen autonomia eta parte-hartze sozio-politikoa bultzatzea.
Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna	→ ZO.B.1 Bizi pertsonal, laboral eta familiarra bateratzeko, eta Udaleko antolakuntzan aldaketak erraztuko dituzten tresnak martxan jarri eta erraztu.
Indarkeria	→ ZO.BI.1 Udaleko Berdintasun sailarekin elkar lanean aritzea, genero biolentzia pairatzen duten eta biktima diren emakumeen arreta hobetzeko.

2. Hirigintza eta ingurumena	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
Mainstreaminga	→ H. M. 1 Hirigintzako estatistikak eta ikerketak genero-irizpideetara egokitzea.
	→ H. M. 2 Berdintasun-gaien inguruan eskaintzen den trebakuntzan parte hartzeko pertsonal tekniko eta politikoaren konpromisoa lortzea.



## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

2. Hirigintza eta ingurumena	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
	→ H. M. 3 Hirigintzak sustatutako programen plangitza egitean eta haiek gauzatzean genero-ikuspegia txertaturik eta bermaturik izateko beharrezko baliabideak martxan jartzea.
Ahalduntzea	→ H. A. 1 Hirigintza, Garraio Publiko eta Ingurumen Sailak antolatzen dituen prozesu parte-hartzaileetan emakume, emakume-elkarte eta berdintasunaren aldeko elkarteen parte hartzea bermatzea.
	→ H. A. 2 Herriko eraikin, kale, plaza eta antzekoei izena jartzeko orduan, hobekuntzak egitea gizon eta emakumeen aitortza orekatua izan dadin, eta herriko egoera aztertzea.
Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	→ H. B. 1 Familia, arlo pertsonala eta lana bateragarri izateko, herriko diseinu- eta planifikazio-irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.
Emakumeen aurkako indarkeria	→ H. Bl. 1 Emakumeak herrian segurtasun-falta sentitzen duten lekuak identifikatzea, eta haiek neutralizatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea; hartara, halako leku gehiago eraiki ez dadin.

3. Lana	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
Mainstreaminga	→ L. M. 1 Oarsoaldeko Garapen Agentziako estatistikak eta ikerketak genero-irizpideetara egokitzea •
Ahalduntzea	→ L. A. 1 Lanbidearen arabera (administrazioan zein enpresa pribatuan), egon litezkeen emakume-/gizon-kopuruaren arteko desorekak murriztea.
	→ L. A. 2 Generoagatiko diskriminaziorik gabeko ikasketak aukeratzea eta orientazio akademiko eta profesionala sustatzea.
Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	→ L. B. 1 Bizitza pertsonala eta lana hobeto uztartzea.
	→ L. B. 2 Etxeko lanei eta zaintzakoei gizonak eta emakumeak eskainitako denboran dagoen desberdintasun kuantitatiboa murriztea.
Emakumeen aurkako indarkeria	→ L. Bl. 1 Protokoloak sustatzea inguruko enpresetan jazarpen sexista prebenitzeko eta horren kontra jarduteko.



# 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

4. Gizarteratzea eta osasuna	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
<b>Mainstreaminga</b>	→ GZ.M.1 Saileko ikerketak eta estatistikak pixkanaka genero-ikuspegira egokitzea.
	→ GZ. M. 2 Pertsonal teknikoak eta politikoak konpromisoa hartzea berdintasunarekin loturiko trebakuntza-eskaintzan parte hartzeko.
	→ GZ. M. 3 Gizarte Zerbitzuetako Sailak beharrezko baliabideak jartzea genero-ikuspegia duten planifikazio, programak eta ekintzak martxan jartzeko.
	→ O. M. 1 Lezoko emakumeei osasun-arreta egokia ematen zaiela bermatzea, eta arreta horren oinarrizko gabeziak azaleratzea.
	→ O. M. 2 Herritarrei sexu-informazio osoa eskaintzea, genero-ikuspegia kontutan hartuz.
<b>Ahalduntzea</b>	→ GZ. A. 1 Bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden emakumeen beharrei baliabide sozialei dagokionez nola erantzuten zaien aztertzea.
	→ GZ. A. 2 Bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden emakumeen parte hartze soziopolitiko bultzatzea.
	→ O. A. 1 Lan-prozesu bat martxan jartzea, emakumeen gaitasuna areagotzeko euren ongizate fisiko eta mentalaren inguruko informazioa jaso eta erabakiak har ditzaten
<b>Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna</b>	→ GZ. B. 1 Zaintza-lanetan diharduten pertsonen eta, bereziki, emakume zaintzaileen karga sozial eta psikologikoak murrizteko baliabideak handitzea.
	→ GZ. B. 2 Gizarte-antolakuntza berri bat bultzatzea (sentsibilizazioa, ikusaraztea...)
	→ O. B. 1 Zaintzaren ardura hartzen duten emakumeen eskubideak eta ongizatea sustatzea.
<b>Emakumeen aurkako indarkeria</b>	→ GZ. BI. 1 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta horren inguruan sentsibilizatzea.
	→ GZ. BI. 2 Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako arreta-, laguntza- eta babes-beharrei erantzutea, eta eraso sexualen edota etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretarako tokiko protokoloa egokitzea.



## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

4. Gizarteratzea eta osasuna	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
	→ O. Bl.1 Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako laguntza fisikoa eta psikologikoa hobetzea.

5. Kultura	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
<b>Mainstreaminga</b>	→ K. M. 1 Kultura Saileko ikerketak eta estatistikak pixkanaka genero-ikuspegira egokitzea
	→ K. M. 2 Politikariek eta pertsonal teknikoak konpromisoa hartzea berdintasunaren gaineko trebakuntza-eskaintzan parte hartzeko
	→ K. M. 3 Kultura Sailak beharrezko baliabideak jartzea hark sustatutako programen plangitzek eta ekintzek genero-ikuspegia txertaturik izan dezaten.
	→ K. M. 4 Lezoko liburutegiko fondoetan dauden eta Berdintasun Legearen 30. artikulua betetzen ez duten materiala deuseztatzea.
<b>Ahalduntzea</b>	→ K. A. 1 Emakumeek kultura eta artearen arloan egindako sorkuntza bultzatzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere.
	→ K. A. 2 Saileko difusio-materialetan genero-ikuspegia txertatzea, gizarte- eta kultura-arloko jardueretan aukera-berdintasuna ager dadin eta emakumezkoen ahalduntzeari lagun diezaion.
<b>Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna</b>	→ K. B. 1 Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etika sustatzen duten gizarte- eta kultura-arloko guneak areagotzea
<b>Emakumeen aurkako Indarkeria</b>	→ K. Bl. 1 Emakumeen aurkako indarkeriari lotutako balioen transmisioa sustatuko duten gizarte- eta kultura-arloko espazioak areagotzea



## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

6. Kirola	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
Mainstreaminga	→ KI. M .1 Saileko azterketak eta estatistikak pixkanaka genero-ikuspegira egokitzea.
	→ KI. M .2 Pertsonal teknikoak eta politikari guztiek berdintasun-gaietako oinarritzko edo gutxieneko trebakuntza lortzea.
	→ KI. M .3 Beharrezko baliabideak martxan jartzea Sailak sustatutako programen plangintzan genero-ikuspegia txertaturik eta bermaturik izateko
Ahalduntzea	→ KI. A .1 Genero-estereotipoak gainditzen dituzten gizona-koentzako eta emakumezkoentzako kirolak dibertsifikatzea.
	→ KI. A.2 Gizon eta emakumeek burutzen dituzten kirol praktika areagotu, beraien interesen arabera egiten dituzten aukeraketa posibleen arabera eta genero erlazioak kontuan hartuz
Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	→ KI. B .1 Kirol-instalazioen erabilera egokitzea bai emakumeen bai gizonen beharretara, pentsamolde-aldaketa bultzatuz.
Emakumeen aurkako indarkeria	→ KI. BI .1 Berdintasunaren eta errespetuaren balioak bultzatzen dituen kirol-kultura berria bultzatzea.

7. Hezkuntza	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
Mainstreaminga	→ HE.M.1 Genero-ikuspegia kontuan hartzea hezkuntza-arloko jarduna planifikatzean eta garatzean.
	→ HE.M.2 Berdintasun Legearen 30. artikulua betetzen ez duten materialak deuseztatzea.
Ahalduntzea	→ HE.A.1 Gizon eta emakumeen presentzia orekatzea kontsulta-organoetan eta parte hartze prozesuetan, sexuen arteko berdintasun



## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

7. Hezkuntza	
PLANAREN ARDATZAK	HELBURU OPERATIBOAK
	kuantitatiboa areagotze aldera.
Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	→ HE.B.1 Gazte jendearen artean eta, bereziki, mutilen artean, etxeko lanetako erantzukidetasuna bultzatzea, eta zaintzari buruzko kontzientzia areagotzea.
Emakumeen aurkako indarkeria	→ HE.BI.1 Ikastetxeetan indarkeria sexistarekin lotutako kasuak antzematea, eta horiek Udalarekin koordinatuz bideratzea.
	→ HE.BI.2 Genero-indarkeriaren aurkako borrokarako ekintza eta espazioak antolatzea.

- Helburuez gain, **helburu horiek lortzeko ekintzak** (249 ekintza) ere proposatzen ditu Planak.
- Plana garatzeko, gainera, **hainbat baliabide proposatzen ditu**:
  - Plana garatzeko **beharrezkoak diren kudeaketa-egiturak**:
    - Talde Eragilea/Berdintasun Saila: egitura hau berdintasun-zinegotziak eta berdintasun-teknikariak osatzea proposatzen da Planean. Berdintasunerako Plana onartu ondoren, aurreikusi zen **berdintasun-teknikaria** kontratatzea, eta astean 15 orduko lan-dedikazioa izango zuela.
    - **Sailen arteko Komisia**: Udaleko arlo guztietako **politikariekin eta teknikariekin lan-taldeak** eratzea berdintasun-arloaren koordinaziopean, Plana gauzatzeko eta genero-ikuspegia sartzeko. Egitura horren bidez planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea proposatzen zen. Udalean koordinaziorako egitura bat dagoen arren, ez da Berdintasunerako Planaren jarraipen zehatzik egin.
    - Aurreikusten zen **herritarrek parte hartzeko egitura** sortzea, eta planaren jarraipena eta iritzi eta iradokizunak jasotzeko tresnak izatea; hala nola Udaleko webgunea, Ongizate Batzordea eta planaren arabera sortzekoa zen Berdintasun Kontseilua.





## 3. Lezoko I. Udal Planaren ezaugarriak

- Urtez urteko planak edo **urtekako kudeaketa-planak**: plana bera urtekako kudeaketa-planetara ekarrita dago, eta bertan jasotzen dira urte bakoitzean egin beharreko ekintzak, ebaluatzeko adierazleak eta ekimena egin beharreko urte-garaia. Planaren segimendua Berdintasun Batzordeak eta Berdintasun Arloaren Informazio Batzordeak egingo zuela jasotzen zen, eta urte bakoitzean urteari zegozkion ebaluaketa-fitxak beteko zirela. Urte hauetan zehar, ez da inolako jarraipenik egin.
- Plana garatzeko **beharrezko baliabide ekonomikoak**: 2011n, 17.000 euroko aurrekontua ezarri zen. Aipatu zen, gainera, zenbateko hori mantendu edo handitu behar zela planaren garapena bermatzeko.



### 4.1. Helburuen eta ekintzen betetze-maila

Aipatu helburuak lortzeko, 4 urtetan (2011-2014 epealdian) lortu beharreko helburuak eta egin beharreko ekintzak zehaztu zituen Planak.

- Batetik, **Planaren betetze-maila kuantitatiboa**

Helburuekin lotuta, sailez sail proposatzen ziren ekintzak egin diren ala ez aztertu da, egin direnak eta ez direnak zenbatuz eta ehunekotara ekarriz. Ekintza horien, eta, hortaz, helburuen garapen-maila zenbatekoa den ere aztertu eta kuantifikatu da.

Azterketa egin ahal izateko, sail bakoitzeko datuak eskatu ditugu, eta, gehienak erantzun duten arren, Idazkaritzak eta Hirigintzak ez digu daturik eman; beraz, ez dugu horien informaziorik.

Bestalde, lehen Plana gauzatzeko arduren banaketan egun Udalean ez dauden teknikariak azaltzen dira, berdintasun-teknikaria eta enplegu-teknikaria, kasu. Horren ondorioz, ezin izan dugu neurtu teknikari eta departamentu horiei dagozkien ekintzen eta helburuen betetze-maila.

Zeharkakotasunaren ikuspegitik, **sail guztiei zegozkien 35 ekintzetatik**, bakarra egin da; hau da, 7 helburutatik, bakar bat bete da; datu-bilketan, sexu-aldagaia txertatzea, hain zuzen ere.

**Kultura Sailari** dagokionez, aurreikusita zeuden 35 ekintzetatik, 8 baino ez dira egin. Bederatzi helburuetatik, bakar bat bete da: “ikerketak eta estatistikak genero-ikuspegira egokitzea”.

**Kirol Sailean**, aurreikusitako 30 ekintzetatik, 9 baino ez dira egin; hau da, azkenean, zazpi helburuetatik, bakar bat bete da: “berdintasunaren eta errespetuaren balioak bultzatzen dituen kirol-kultura berria bultzatzea”.

**Ongizate Sailean**, aurreikusitako 68 ekintzetatik, 12 egin dira; hau da, azkenean, 15 helburutatik, bakarra bete da: “zainketa-lanetan diharduten pertsonen eta, bereziki, emakume zaintzaileen karga sozial eta psikologiakoak murrizteko baliabideak handitzea”.

Laburbilduz, Planean, guztira, 245 ekintza zeuden aurreikusita; horietatik, 168ri buruzko informazioa eskuratu ahal izan dugu, eta, 168 horietatik, 30 baino ez dira bete.

Sail guztietan, helburu bakar bat besterik ez da bete.



- Bestetik, tauletan jasotako informazio horren guztiaren analisi kualitatiboa egin da. Horretarako, tailerrak baliatu ditugu, teknikari zein udal-ordezkariekin egindakoak.

Aurreko datu kuantitatiboak teknikari zein udal-ordezkariei erakustean, balorazioa negatiboa izan da, espero bezala.

### 4.2. Landu ez diren ekintzak eta horretarako arrazoiak

Eskuratu ahal izan ditugun datuen arabera, aurreikusitako **ekintzen % 18 bete da bakarrik, hau da, ekintzen % 82 ez da bete**; hots, helburu zein ekintzen portzentaje handiena ez da bete.

Emaitza negatibo horren arrazoi nagusiak honela laburtu ditugu:

- **Konpromiso politiko falta:** udalbatzak ez ditu bete 2011n Lezoko Berdintasunerako I. Planean bere gain hartu zituen konpromisoak.
- **Teknikari eta egitura falta:** asteen 15 orduko lan-dedikazioa izango zuen berdintasun-teknikari bat kontratatzea aurreikusten zen Planean. Alabaina, lau urte hauetan, ez da kontrataziorik egin; beraz, ez da inor ere arduratu Plana gauzatzeaz eta bultzatzeaz.
- **Parte hartzeko egitura falta:** aurreikuspenen arabera, herritarrez osaturiko parte hartzeko egitura bat sortu behar zen Planari jarraipena egiteko, baina ez da halakorik egin.
- **Baliabide falta:** udal-aurrekontuetan ez da berdintasunerako partidarik gorde. 2011n, 17.000 euroko aurrekontua ezarri zen. Plana gauzatzeko, urtez urte kopuru hori mantendu edo handitu beharko litzatekeela jaso zen Berdintasunerako I. Planean, baina gauzak ez dira horrela izan. Ordudanik 2013. urtera arte, Udalean ez da berdintasunerako partidarik egon. Urte hartan, lehen aldiz, 1.600 €-koa izan zen; aurtan, berriz, 6.000 €-koa.
- **Udal-teknikarien parte-hartzea Plana diseinatzen:** udal-teknikariek parte hartze zuzena izan zuten diagnostikoaren lanketan, baina ez zen gauza bera gertatu Planaren diseinuarekin. Udal-teknikari gehienek ez zekiten zer ekintza eta helburu zegozkien.
- **Udaleko errealitatera egokitzea:** Planean, enplegu-teknikariaren figura azaltzen da arduradun gisa, baina Lezoko Udalean ez dago berdintasun-teknikaririk.



## 4. Ebaluazioaren emaitza

- **Planaren difusioa:** udal-teknikari gehienek ebaluazio-fasearen barnean egindako tailerren bidez izan dute 2011n onartu zen Planaren berri. Udal-ordezkarri batek ere ez zekien halakorik bazenik, eta pentsatzekoa da herritarrek ere ezetz, nahiz eta ez dugun aukerarik izan haiekin hitz egiteko.

### 4.3 Berdintasunerako Plana garatzearen inpaktua

Gauzatu ez denez, ezin dugu bere inpaktua neurtu.

### 4.4. Planaren errotze-maila

Ebaluazioaren emaitza gisa jaso ditugun datuek argi erakusten dute Plana ez dela errotu, ez Udalean ezta udalerrian ere. Egoera hori ardura politiko zein teknikorik ezaren ondorio izan da. Plana 2011n onartu zen arren, ez da ez gauzatu ezta jarraipena egiteko egitura tekniko, politiko eta herritarrenik sortu ere.

### 4.5. Planetik kanpo egin diren berdintasun-ekimenak

2012ko maiatzean, **Oarsoaldeko Berdintasun Batzordea** osatu zen. Bertan, Erreterriako eta Pasaiako berdintasun-teknikariak eta Lezoko eta Oiartzungo gizarte-langile arduradunek hartzen dute parte. Batzordean parte hartu eta gero, hasi dira Lezon Berdintasunaren inguruan gauza txiki batzuk egiten.

Batzorde horretan, lau herrietako ordezkari politikoek ere hartzen dute parte, eta noizean behin teknikariak eta politikariak ere biltzen dira gaia lantzeko.

Batzorde horretako ekimen gisa, ondorengo ekintzak egin ziren Lezon 2012. urtean:

- Herriko jaietan tabernariei eta dendariei bidaltzen zaien eskutitzean, berdintasuna aipatu da lehen aldiz: jarrera sexista, lesbofobo, homofobo, transfobo eta xenofoboak ez onartzeko adierazten zaie.
- Jaietako programan, berdintasunaren irudi bat eta lelo bat txertatu ziren estreinakoz.
- Azaroaren 25ean, Oarsoaldeko mugimendu feministarekin batera, elkarretaratze bat antolatu zen Erreterrian. Lau herriek hartu zuten parte, eta



## 4. Ebaluazioaren emaitza

Lezok deialdia egin zuen bertan parte hartzeko. Herriko elkarte eta eragileek ere bat egin zuten elkarretaratzearekin.

- Gabonetan, herriko ikastetxeetako haurrei (2-12 urtekoei) jostailuen dekalogoia banatu zitzaien (zeharkakotasuna kontutan hartuta, nolako jostailuak gomendatzen ditugun aipatzen da).

2013an, Lezon egindako ekintzak:

- Herriko jaietan, logo-lehiaketaren irudi irabazlearekin pegatinak eta kartelak egin ziren taberna eta dendetan banatzeko.
- Erakusketa bat egin zen lehiaketa horretan parte hartutako lan guztiekin.
- Emakumeentzako autodefentsa-tailerra antolatu zen azaroan.
- Adierazpen instituzionala egin zen azaroaren 25ean.
- Gabonetan, herriko ikastetxeetako haurrei (2-12 urtekoei) jostailuen dekalogoia banatu zitzaien.



## 5. Ebaluazioaren ondorio nagusiak

Berdintasunerako I. Udal Planarekin lehenengoarekin gertatutakoa gerta ez dadin, ondorengo gutxienekoak ziurtatu beharra dago:

- Konpromiso politikoa, oinarrizko baliabide pertsonal zein ekonomikoak eskuratzeko.
- Berdintasunerako Planaren arduradun politiko zein teknikoak. Horretarako, beharrezkoa da politikari bat gaiaren arduradun gisa izendatzea, eta berdintasunerako politika publikoak dituen teknikari edo aholkularitza-zerbitzu baten zerbitzuak kontratatzea.
- Baliabide ekonomikoak esleitzea. 2014ko 6.000 €-ko partida mantendu behar da gutxienez, eta komeniko litzateke urtez urte handituz joatea.
- Beharrezkoa da II. Udal Planaren diseinuan udal-teknikariak parte-hartze zuzena izatea, hau da, haiekin batera helburu eta ekintza errealistak finkatzea.
- Berdintasunerako Plan berria onartu ostean, difusio-lan zabala egin beharko da bai Udal barnean bai herritarren artean.



## 6. Plan berriaren lan-ardatzak

47.

### Berdintasunaren aldeko **GOBERNANTZA**

Berdintasunaren printzipioa erakundeetan bertan eta bere funtzionamenduan txertatzeko 13 neurriak:

Berdintasunerako Plana areagotzea eta hobetzea

Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea

Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea

Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea

Prestakuntza-jardueretan genero-ikuspegia sartzea

Hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea

Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero-ikuspegia sartzea

Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea

Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea

Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea

Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea

Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea

Epaimahaietan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua sustatzea



Lezoko Berdintasunerako II. Plana programatan egituratzen da. Programa bakoitza helburu nagusi batekin lot daiteke. Berdintasun-egoera lortu nahi da zenbait eremutan, eta horiek identifikatzen dituzte programek. Tartean badira eragingune zehatzagoak ere, bai beharrezkotzat jotzen delako aldaketak eremu jakin batean eragitea, baita pertsona-talde batengan eraldaketa bultzatu nahi delako ere.

Planak lau urteko indarraldia izango du, eta, beraz, 2015etik 2018ra gauzatzeko ekintza-sorta da. Modu horretan, herrian berdintasunaren alde egiten diren ekintzei ikusgarritasuna eman nahi zaie, eta koordinaziorako gune bilakatu nahi da.

Planean alderdi hauek jasotzen dira: programak, aurreikusitako ekintza konkretuak, horiek gauzatzeko behar den aurrekontua, arduradunak, lankidetzak eta jarraipen eta ebaluaziorako jaso beharreko adierazleak.

Planeko eragileak honako balio hauetan oinarritu dira, eta balio hauek errespetatuz gauzatuko dute:

- **Malgutasuna:** momentuko egoerei erantzunez, aldaerak onartuko ditu planak. Horretarako, urtez urteko planean ekintzak zehazteko aukera egongo da.
- **Dinamikoa:** etengabe berrikusiz, berrituz eta moldatuz joango da.
- **Parte-hartzea:** eragileen arteko elkarlanaz eratuko dira egitasmoak.
- **Komunikazioa:** eragileen arteko norabide anitzeko informazio-fluxuak sortuko ditu.
- **Koordinazioa:** elkar zapaltzen ez duten ekintzak antolatuko dira, eta, are gehiago, indarrak batu eta sinergiak aprobetxatuko dira.
- **Adostasuna:** hausnarketan oinarrituz eta alde guztien artean bilatutako irtenbideak aplikatuz egingo da.





## 7.1. Planaren programak

	PROGRAMA	GOBERNANTZA	BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA	GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRAZTEA
1.	<b>UDALA</b> 1.1. Udal-politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea	X			
2.	<b>BALIOAK ALDATZEA</b> 2.1. Pertsonei sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak eraldatzea.		X		X
3.	<b>EMAKUMEAK BOTERETZEA</b> 3.1. Emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea		X	X	X
4.	<b>ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA</b> 4.1. Udal, enpresa zein herritarren artean kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.		X	X	
5.	<b>INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA</b> 5.1. Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitu eta biktimentzako arreta hobetzea		X		X



## 7.2. Planaren helburuak

Programa horiek dituzten helburu orokorrak eta zehatzak jasotzen dira segidan:

### 1. Gobernantza hobetzeko neurriak

#### Helburua:

Udal-politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

#### Helburu zehatzak:

- 1.1. Berdintasunerako unitate administratiboa sortzea
- 1.2. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea
- 1.3. Prestakuntza-jardueretan genero-ikuspegia txertatzea
- 1.4. Lezoko Udaleko lanpostuetarako hautaketako eta barne-promozioko prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea
- 1.5. Udaleko komunikazio-elementuak modu ez-sexistan erabiltzea
- 1.6. Udal-araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea
- 1.7. Udal-kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea
- 1.8. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkari-tza orekatua sustatzea

### 2. Programa: Balioak aldatzea

#### Helburua:

Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak eraldatzea

#### Helburu zehatzak:

- 2.1. Erantzukizun ekonomikoa gizonekin eta familiaren eta etxearen ardura emakumeekin lotzen duten ume, gazte eta helduen kopurua murriztea.
- 2.2. Emakumei eta gizonei lan-, kirol- eta musika-rol eta -estereotipoak esleitzen dizkieten umeen, gazteen eta helduen kopurua murriztea.
- 2.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometituta dauden eta hori defendatzen duten pertsonen kopurua handitzea, batik bat, ardurapean adingabeak dituztenena edo beren erantzukizunengatik adingabeentzako erreferentzia-eredu diren kopurua (senideak, zaintzaileak, begiraleak eta abar).



### 3. Programa: Emakumeak boteretzea

#### Helburua:

Emakumezkoen boteretze prozesuak laguntzea

#### Helburu zehatzak:

- 3.1. Emakumeen autoestimua hobetzen eta garatzen laguntzea.
- 3.2. Herriko emakumeen eta beren ekarpenen gizarte-aitorpena handitzea.
- 3.3. Genero-kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomia sustatzea.
- 3.4. Emakumeak lan-munduan sartzea, eta haien lan-baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea.

### 4. Programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera

#### Helburua:

Udal, enpresa zein herritarren artean kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.

#### Helburu zehatzak:

- 4.1. Amatasun- eta aitatasun-baimenak parekatzea sustatzea, iraupen bera izan dezaten, eta aldi berean ez hartzea bultzatzea.
- 4.2. Kontziliazio-neurriei heltzen dieten udal-langile gizonezkoen ehunekoa handitzea.
- 4.3. Haur eta gazteek etxeko lanak eta zaintzakoak egiten pasatzen duten denbora handitzea, eta mutilei arreta berezia jartzea.
- 4.4. Herritarrei eskainitako zerbitzuen ordutegiak malguagoak egitea, langileen kontziliazio erantzukidea bermatzeko.
- 4.5. Pertsonen autonomia erraztuko duten irizpideak, hirigintza-planetakoak eta etxebizitzaren eta espazio publikoen diseinukoak, identifikatzea eta aplikatzea.



### 5. Programa: Indarkeria sexistari aurre egitea

#### Helburua:

Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitu eta biktimentzako arreta hobetzea

#### Helburu zehatzak:

- 5.1. Desberdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arteko harremana agerrarazten duten programa eta jarduerak diseinatu eta garatzea.
- 5.2. Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek berdintasunik ezarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea.
- 5.3. Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa eta arreta bermatzea.

## 7.3. Ekintza Plana

### 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

1. PROGRAMA: GOBERNANTZA								G		
Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
<b>1.1.1.</b>	Berdintasun-teknikari bat kontratatzea	X	X	X	X	30.000	Alkatetza	-Idazkaritza (Pertsonala) -Gizarte Zerbitzuak	Gutxienez, 4 urterako (Planaren iraupena) teknikaria edo aholkularitza-zerbitzua kontratatu izana	
<b>1.1.2.</b>	Udal-egituraren organigraman Saila kokatzea : Alkatetzan kokaturiko sail autonomo gisa eta SKBn txertatua	X					Alkatetza	Egitura eta SKBn txertatzea		



## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
<b>1.1.3.</b> Berdintasunerako arduradun politikoa eta berriazko aurrekontua esleitzea	X	X	X	X		Alkatetza		Politikaria eta aurrekontua esleitzea
<b>1.1.4.</b> Herritarrek, politikariek eta teknikariek parte hartzeko berdintasun-foroa sortzea		X				Alkatetza		Foroa sortzea
<b>1.2.1.</b> Udaleko azterlan, inprimaki, eskaera-orri eta estatistiketan sexu-aldagaia sartzea.		X				Idazkaritza	Sail guztiak	Sexu-aldagaia txertatuta duten Udaleko azterlan, inprimaki, eskaera-orri eta



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

55.

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK	
	2015	2016	2017	2018					
								estatistiken ehunekoa	
<b>1.2.2.</b>	Bi urtean behin Udaleko azterlan eta estatistiketan sexu-aldagaia ustiatzea eta aztertzea: datuak sexuaren arabera ustiatu edo interpretatzean, sexu-aldagaia eta askotariko diskriminazioaren beste aldagai batzuk gurutzatzea, gizon-emakumeen arteko berdintasunik eza identifikatzea, aztertzea eta genero-adierazleak sartzea		X		X		-Berdintasun teknikaria	Udaleko azterlan eta estatistiken ehuneko zenbatean ustiatu eta aztertu den sexu-aldagaia	
<b>1.2.3.</b>	Lezoko emakumeen egoerari eta/edo berdintasunaren arloko berriazko gaiei buruzko			X		15.000	Idazkaritza	Sail guztiak	Azterlan-kopurua



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
azterlanak egitea								
<b>1.3.1.</b> Udalbatzako kideentzako berdintasun-politiken gaineko oinarrizko formazioa diseinatzea, egitea eta ebaluatzea		X	X		3000	Berdintasun- teknikaria	Alkatetza	Formazioa diseinatu eta egin izana  Udalbatzako parte-hartzaileen ehunekoa  Parte-hartzaileen balorazioa





# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

57.

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
	<b>1.3.2.</b>	Udal-teknikarientzako berdintasuneko oinarriko prestakuntza-plana sortzea, egitea eta ebaluatzea		X				
<b>1.3.3.</b>	Berdintasun-edukiak dituzten baina berdintasunera berariaz bideratzen ez diren prestakuntza-			X	X	Idazkaritza (pertsonala)	Sail guztiak	Jardunaldi-kopurua eta parte hartu



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

58.

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
	jardueretan parte hartzea							duen teknikari-kopurua
<b>1.4.1.</b>	Udaleko lanpostu publiko berriak lortzeko eta barne-promoziorako hautaketa-prozesuetan berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat txertatzea emakumeen ordezkartza % 40koa baino txikiagoa den talde, eskala, maila eta kategorietan		X	X	X		Idazkaritza (pertsonala) Sailburuak	Klausula txertatzeko baldintzak bete dituzten lanpostuetatik, klausula txertatu zaien ehunekoa



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

59.

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

1. PROGRAMA: GOBERNANTZA								G		
Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
<b>1.4.2.</b>	Udal-enplegu publikoa lortu eta barne-promoziorako hautaketa-prozesuetarako ikasgai-zerrendan berdintasun-edukiak txertatzea		X	X	X		Idazkaritza (pertsonala)	Berdintasun-technikaria	Egin diren hautaketa prozesuetatik berdintasun-edukiak txertatu direnen ehunekoa	
<b>1.5.1.</b>	Udaleko komunikazio-elementu guztietan (webgunea, ordenantzak, lan-eskaintzak, aktak, Lezo aldizkaria...) sexismoa azaltzen den aztertzea:	X	X				Berdintasun-technikaria	Komunikazio-taldea SKB Sail bakoitza	Dauden elementu guztietatik azterketa egindakoen kopuru edo ehunekoa	



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

60.

1. PROGRAMA: GOBERNANTZA								G		
Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
1.5.2.	Identifikaturiko sexismo-aztarnak zuzentzea							Aurkituriko okerretatik egindako zuzenketen ehunekoa		
1.5.3.	Euskararen zein gaztelaniaren erabilera ez-sexistari buruzko trebakuntza- tailerra diseinatzea eta egitea udal-langile zein politikariek					X	1.500	Trebakuntza egin izana Parte harturiko udal-langile eta -politikarien kopurua Parte-hartzaileen		



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

61.

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
								balorazioa
<b>1.5.4.</b>	Tailerrean adosturiko gidalerroekin, hizkuntzaren erabilpen zuzena egiteko gida sortzea eta zabaltzea udal-teknikari eta politikarien artean.			X	3.000	Berdintasun-teknikaria	Komunikazio-taldea SKB Sail bakoitza Udalbatza	Gida sortu izana Gida jaso duten sail-kopurua Teknikariek zenbateraino erabili duten gida Teknikariek gida nola



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

62.

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

1. PROGRAMA: GOBERNANTZA										G		
Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea										A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK				
	2015	2016	2017	2018								
												baloratu duten
<b>1.6.1.</b>	Udal-araudi berriak diseinatzean, generoaren araberako eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioak egitea (40/2012 ebazpena)		X	X	X		Berdintasun- teknikaria	Espedientear en arduraduna  Sailburuak	Sortu diren araudi berrietatik, zenbatetan egin den ebaluazioa			
<b>1.7.1.</b>	Kontratuetan berdintasunerako klausulak aplikatzeari buruzko akordio, arau edo zirkularra onartzea Udalean		X	X	X		Berdintasun- teknikaria  Udalbatza	SKB  Idazkaritza	Akordio, arau edo zirkularra sortzea onartzea			



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

1. PROGRAMA: GOBERNANTZA								G		
Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
								Udalbatzan onartzea Klausula txertatu den kontratuen ehunekoa		
<b>1.7.2.</b>	Diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak aplikatzeari buruzko ordenantza, erregelamendu edo akordioak onartzea Udalean		X			Udalbatza Berdintasun-teknikaria	SKB	Ordenantza, erregelamendu edo akordioa sortzea Udalbatzan onartzea		



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

1. PROGRAMA: GOBERNANTZA									G			
Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea									A	E	I	
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK				
	2015	2016	2017	2018								
												Klausula txertaturiko diru-laguntzen ehunekoa
<b>1.7.3.</b>	Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan, berdintasunerako klausulak txertatzea		X			Udalbatza Berdintasun- teknikaria	SKB					Klausula txertatu den kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenen ehunekoa
<b>1.8.1.</b>	Klausula bat eranstea Udaleko lanpostu publikoak		X	X	X		Idazkaritza	Berdintasun-				Ordezkaritza orekatua izan





# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

## 1. PROGRAMA: GOBERNANTZA

Helburua: Udal-politika eta -ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen-prozesuetako epaimahaietan zein kontratazio-mahaietan emakumeen eta gizonen ordezkariak izan dadin (betiere, ahal baldin bada, hau da, gaian adituak diren emakumezkoak eta gizonezkoak baldin badaude).							teknikaria Sailburuak	duten epaimahaien ehunekoa

## 2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA

Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak aldatzea

G

A

E

I



## 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

66.

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
<b>2.1.1.</b> Haur edo/eta zaintza eta hezkuntzarekin zerikusia duten udal-zerbitzuetan gutxieneko gizon- edo mutil-kopuru bat bermatzea: ludotekako hezitzaile bat mutila izatea eta udalekuetako begiraleetako bat bederen mutila izatea (pleguetan, irizpide modura integratu)		X				Kultura eta Euskara	Berdintasuna	Gizonezko begiraleen ehunekoa
<b>2.1.2.</b> Ludotekako materiala: jolasak, liburuak, ipuinak eta abar genero-ikuspegiaren arabera aztertzea eta berdintasun-irizpideetara egokitzea	X				1.500	Kultura	Berdintasuna	Azterketa egitea Egokitzea behar izan duten materialen ehunekoa
<b>2.2.1.</b> Kuadrillategi zein kale-heziketako programako gazteekin genero-estereotipo eta edertasun-kanonen gaia lantzea, aldizkari, prentsa edo/eta publizitatearen azterketa	X					Euskara eta Ongizatea	Berdintasuna	Urtean behin, behintzat, lanketa egitea



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

67.

## 2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA

Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak aldatzea

2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA								G					
Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak aldatzea								A	E	I			
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK					
	2015	2016	2017	2018									
	eginez, adibidez.							Begiraleen eta gazteen balorazioa  Ekintzak jarraipenik izan duen ala ez.					
<b>2.2.2</b>	Familiako esku-hartzean, familietako kideengan genero-rolak erreproduzitzea saihestea hezitzaileen bidez. Hezitzaileak kontzientziatuak egotea eta genero-rol tradizionalak gaindituko dituzten baloreak transmititzea.						X	X	X		Ongizatea	Berdintasuna	Familia-hezitzaileek berdintasunean duten formazio-maila  Programan txertaturiko



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

## 2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA

Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak aldatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
								aldaketak
<b>2.2.3.</b>	Eskola-kiroleko urteko jarduera-plana diseinatzean, berdintasun-irizpideak kontutan izatea.	X	X	X	X	Kirolak	Berdintasuna	Urteko jarduera-planaren genero-ikuspegiaren araberrako balorazioa: neska eta mutilen parte-hartzea kirol bakoitzean eta zenbat begirale diren



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

## 2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA

Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotzirik genero-estereotipo eta -rolak aldatzea

2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA										G			
Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotzirik genero-estereotipo eta -rolak aldatzea										A	E	I	
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK					
	2015	2016	2017	2018									
													emakumezkoak eta zenbat gizonezkoak kirol bakoitzean
<b>2.2.4.</b>	Musika Eskolako matrikulazio-garaian, kanpaina hau zabaldu: "Instrumentuek ez dute sexurik, ezta? Bada, zureak ez zaitzala mugatu		X	X	X	600	Musika Eskola	Berdintasuna	Kanpaina diseinatu eta egin izana	Instrumentu bakoitzean matrikulaturiko neska- eta mutil-kopuruetan			



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

70.

2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA									G		
Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak aldatzea									A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK			
	2015	2016	2017	2018							
								aldaketarik izan den ala ez.			
<b>2.2.5.</b>	Lezo adizkarian, Udalaren webgunean eta sare sozialetako profiletan, bi sexuen ordezkaritza orekatua eta irudi plurala sustatzen duten eta edertasun-kanonetatik eta estereotipo sexistetatik at dauden programen eta edukien kopurua handitzea	X	X	X	X		Komunikazio-taldea	Berdintasuna	Bi sexuen ordezkaritza orekatua eta irudi plurala sustatu duten programen ehunekoa		
<b>2.3.1.</b>	Guraso-elkarteekin hezkidetza-saioak egitea			X	X	6.000	Berdintasuna	Kultura eta Kirola	Saioak egitea Edukiak		



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

71.

## 2. PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA

Helburua: Pertsonen sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta -rolak aldatzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
								gurasoen jakin-minari erantzutea Zenbat aitek eta amek parte hartu duten Gurasoen balorazioak

## PROGRAMA: EMAKUMEAK BOTERETZEA

G



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

72.

Helburua: Emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
<b>3.1.1.</b> Emakumei zuzenduriko autoestimu-tailer edo -ikastaro bat antolatzea Udalean. Hauek izango lirateke parte-hartzaileak: indarkeria jasaten duten eta baliabideen gaineko informazio eske etortzen diren emakumeak, familiako esku-hartzeetako emakumeak, kale-hezitzaileen zerbitzua jasotzen duten neskak, Sendian programan dauden emakumeak eta, oro har, Ongizateko emakumezko erabiltzaileak	X				1.500	Ongizatea	Berdintasuna eta Gaxuxa	Ikastaroa egin izana  Zenbat emakumek hartu duten parte eta nolakoak diren  Parte-hartzaileen balorazioa  Ekintzari jarraipenik egin zaion ala ez		





# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

73.

PROGRAMA: EMAKUMEA BOTERETZEA								G		
Helburua: Emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
<b>3.2.1.</b>	Herriko historian emakumeek egindako lanar aitortzeko ekintzak bideratzea: ikerketa-lehiaketa edo beka bat antolatzea Lezoko emakumeen historiaren inguruan (1. fasea: historia ezagutzea)			X	6.000	Kultura	Berdintasuna Gaxuxa	Ikerketa- edo lehiaketa-beka antolatu izana		
<b>3.2.2.</b>	Herriko historian emakumeek egindako lana aitortzeko ekintzak bideratzea: herriko kale-izendegiaren zein oroitarri eta eskulturen azterketa egitea eta horiei emakumeen ekarpenak eranstea, Lezoko emakumeen historiaren inguruko ikerketaren ondorioetan oinarrituz (2. fasea)			X		Kultura	Berdintasuna Aiton Borda Gaxuxa	Egindako ekintza-kopurua  Ekintzaren diseinu eta garapenean parte hartu duten eragile-kopurua		



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

PROGRAMA: EMAKUMEA BOTERETZEA								G		
Helburua: Emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
								Parte-hartzaile eta herritarren balorazioa  Ekintzari jarraipenik egin zaion ala ez		
<b>3.2.3.</b>	Egunerokoan emakumeek egiten duten lana aitortzeko ekintzak bideratzea: mural bat egitea Udalak apropos jotzen duen horma batean, eta alde zurretik proposamenekin lehiaketa egitea				X	3.000	Kultura  Berdintasuna  Hirigintza  Kirola	Lehiaketa eta murala egin izana  Lehiaturiko proiektu-kopurua		



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

75

PROGRAMA: EMAKUMEA BOTERETZEA								G		
Helburua: Emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
								Herritarren balorazioa		
<b>3.3.1</b>	Jabekuntzari loturiko hitzaldi, trebakuntza eta abar martxan jartzea Udalak, Gaxuxarekin elkarlanean, herriko emakumeentzat: sexualitate-tailerrak gazteentzat, teknologia berriak emakume nagusientzat...	X			3.000	Ongizatea	Berdintasuna Gaxuxa Kultura	Eginiko ekintza-kopurua  Zenbat emakumezko parte hartu duen eta nolakoak diren  Parte-hartzaileen balorazioa		



## 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

76.

PROGRAMA: EMAKUMEA BOTERETZEA								G			
Helburua: Emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea								A	E	I	
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK			
	2015	2016	2017	2018							
<b>3.4.1.</b>	Herriko enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun-diagnostiko eta -planak diseinatzeko eta gauzatzeko diru-laguntza programa bat diseinatzea Udalak. Emakundek egun eskaintzen duenaren osagarria izango litzateke diru-laguntza hori.						X	15.000	Berdintasuna		Programa diseinatzea Programa ezagutzera emateko ekintza-kopurua Eskaera-kopurua



## 4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
<b>4.1.1.</b> Amatasun- eta aitatasun-baimenen (16 aste / 112 egun eta 4 aste / 28 egun, hurrenez hurren) parekatzea sustatzea. Helburu hori gehiegizkoa bada, aitatasun-baimena amatasunaren herena (35 egun) izatea bultzatu.			X	X		Alkatetza	Berdintasuna Langileen Komitea	Aitatasun-baimena luzatzea
<b>4.2.1.</b> Udal-langileek erabiltzen ahal dituzten kontziliazio-neurrien gaineko informazioa zabaltzea langileen artean		X		X	1.000	Idazkaritza (pertsonala)	Berdintasuna	Informazioa jasoduten Udaleko langile-kopurua
<b>4.3.1.</b> Belaunaldien arteko zaintza erantzukidea bultzatzeko programak martxan jartzea herrian: nerabe eta gazteek		X	X	X		Ongizatea	Euskara	Oarsoaldeko irrien lagunekin elkarlanean



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

78.

## 4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.

4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA								G		
Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
	haurrentzako ekintzak egitea edo/eta gazteek Aiton Bordakoekin batera ekintzaren bat egitea: Oarsoaldeko irrien lagunak, kale-heziketa...							programa diseinatzea  Adin-tarte eta sexu desberdineko pertsonen parte hartu izana  Partehartzaileen balorazioa		
4.3.2.	Kuadrillategiko eta kale-heziketako programako ekintzen artean, lokalaren mantentze-lanak eta garbiketa egotea.	X	X	X	X		Euskara eta Ongizatea	Berdintasuna  Programa bietan, ekintza honek bere		



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

79.

## 4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.

4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA								G		
Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
	Gazteen ardura izatea lekua garbitzea eta zaintzea, eta ardurak bana ditzatela neska eta mutilen artean.							lekua izatea. Hezitzaile edo begiraleen balorazioa		
<b>4.4.1.</b>	Udala astean behin arratsaldean irekitzeko aukera aztertzea						Alkatetza  Langileen Komitea  Berdintasuna	Gaia aztertzeko egindako bilera-kopurua  Bileretan parte hartu duen eragile-kopuruak		

## 4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
<b>4.5.1.</b> Egunerokoan biztanleek joan-etorrietan zenbat denbora pasatzen duten aztertzea eta denbora hori murrizteko baliabideak jartzea: Gaintxurizketa eta Altamirara joateko garraioa (mikrobusa jarri zen eta ez zen erabiltzen), industrialdeetara joateko bidegorri eta espaloiak, Donibane eta Lezo arteko bidegorria eta antzekoak aztertzea...								Gaintxurizketa eta Altamirarako garraio-beharrak aztertzea eta premiei erantzutea  Industrialdeetara joateko, bidegorri eta espaloiak jartzea.  Donibane eta Lezo arteko





## 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

81.

### 4 PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

Helburua: Udal, enpresa eta herritarren artean, kontziliazio erantzukidea zein zaintzaren etika bultzatzea.

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
								bidea egitea.  Hiru egitasmoetatik, aurrera eraman direnen kopurua.



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

82.

## 5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
<b>5.1.1.</b> Berdintasunik ezaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arteko harremana erakusten duten programa eta jarduerak diseinatzea, batik bat, gizonezkoentzat, edo dagoeneko martxan daudenetan parte hartzea (adibidez, jende gaztearekin “Beldur Barik”).		X	X	X	1.500	Berdintasuna	Ongizatea Euskara Kultura	Egindako ekimen-kopurua  Ekimenetan parte hartu duen gizonezko-kopurua
<b>5.2.1.</b> Sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea eta martxan jartzea emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek berdintasunik ezarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzeko eta emakumeak	X	X	X	X	1.500	Berdintasuna	Ongizatea Euskara	Diseinatu eta exekutaturiko ekimen kopurua



# 7. Lezoko Berdintasunerako II. Plana

## 5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
borrokaren eragile aktibo gisa erakusteko: jaietako eraso sexisten prebentziorako kanpaina eta azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Egunaren inguruko kanpaina.							Kultura ...	Ekimenetan parte hartu duten gizonezko eta emakumezko herritar-kopurua
<b>5.2.3.</b> Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako erantzun instituzionalaren protokoloa lantzea Oarsoaldean	X					Oarsoaldeko Berdintasun Mahaia	Berdintasuna	Protokoloa landu eta egin izana



## 5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea

5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA								G		
Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
<b>5.2.4.</b>	Autodefentsa feministako tailerrak eskaintzea urtero Udalak	X	X	X	X	600	Berdintasuna	Euskara eta Kultura	Eskaintza irizpide feministetara egokitzea Zenbat emakumezko parte hartu duen eta nolakoak diren.	
<b>5.3.1.</b>	Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloa diseinatzea, ezagutzera ematea (gizarteratzea) eta martxan jartzea		X			6.000	Ongizatea	Berdintasuna Bake	Protokoloa diseinatzea Herrian ezagutzera	



# 7. Lezoko berdintasunerako II. Plana

## 5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea

5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA								G		
Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea								A	E	I
EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK		
	2015	2016	2017	2018						
							Epaitegia Udaltzaingoa	emateko ekintza-mota eta -kopurura Protokoloaren berri duten herritar- eta eragile-kopurua		
5.3.2	Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko Udalaren prebentzio- eta arreta-protokoloa diseinatzea eta martxan jartzea	X				Idazkaritza (pertsonala)	Berdintasuna Langile Komitea	Protokoloa diseinatzea eta martxan jartzea		



## 5 PROGRAMA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

Helburua: Gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea

G

A

E

I

EKINTZA	URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA	LANKIDETZA	ADIERAZLEAK
	2015	2016	2017	2018				
<b>5.3.3.</b> Indarkeria sexista jasan duten pertsonak artatzen dituzten profesionalak gaiari trebatzea: bake-epaileak, udaltzainak eta Ongizateko profesionalak		X			3.000	Berdintasuna	Alkatetza	Trebakuntza ematea Zenbatek parte hartu duten eta nolakoak diren  Parte-hartzaileen balorazioa



## 8 Planaren kudeaketa-eredua

Lehenago aipatu bezala, Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasun Legearen eta EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VI. Planaren arabera kudeatu behar da. Hortaz, berdintasun-politikak eraginkor egin behar ditu Planak Udaleko arlo guztietan.

Berdinsareak, Eudelek eta Emakundek idatzitako *Tokiko Berdintasun Planak Diseinatzeko, Kudeatzeko eta Balioesteko Gidak* aipatzen du beharrezkoa dela Planaren prozesu osoan zehar (diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa) Udaleko berdintasun-politikaren ardura duen ordezkari politikoaren lidergoa eta parte-hartzea. Lidergoa ezinbestekoa denez edozein planek arrakasta izan dezan, funtsezkoak dira unean uneko alkatearen eta berdintasun-arloko zinegotziaren lidergoa eta aliantza.

Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik egingo da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek hartuko dute bere gain, bai ekintzen kudeaketa ekonomikoa, bai Plana gauzatzeko konpromiso formala, bai emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso formala. Konpromiso pertsonal horren ondorioz, Udaleko arlo eta zerbitzuetako ordezkariak erantzukizunak hartuko dituzte, eta berdintasunerako politiketan trebatzeko saioetan parte hartuko dute. Hala, helburu oro lortzeko, helburu bakoitzarekin lotzen da Udaleko arlo-arduraduna.

Plazaratutako helburuak eta Plana gauzatzeko, hainbat lan-esparru edo egitura behar dira. Horietako bakoitzak bere funtzioak izango ditu. Jarraian azaltzen ditugu proposatutako egiturak eta funtzioak:



## 8.1. Kudeaketarako egiturak

BERDINTASUN-FOROA		
I. Berdintasunerako Planaren garapenari jarraipena egitea eta ekarpenak egitea		
Funtzioak	Parte-hartzaileak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none"><li>Berdintasunaren inguruan Udalari aholkua ematea</li><li>Neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurri horien ezarpen-maila baloratzea</li><li>Emakume-elkarteen arteko elkarlana bultzatzea</li><li>Iritzia emateko eta analisisa egiteko gaitasuna sortzea eta hausnarketarako espazioa izatea</li><li>Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena egitea</li><li>Berdintasunerako Planeko herritarren sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Berdintasun-technikaria</li><li>Berdintasun-zinegotzia</li><li>Berdintasun Foroa osatzen duten emakume-taldeak</li><li>Interesa izan dezaketen gainontzeko herritarrak</li></ul>	2015-2018

Gaxuxa da, momentuz, emakume hutsez osaturiko Lezoko elkarte bakarra, eta ez du aktiboki parte hartu Udaleko aurreko Berdintasunerako Planaren eta plan berri honen diseinuan, nahiz eta saiatu garen haiekin saio batzuk egiten.

Hala ere, hurrengo urteetan (2015-2018 urte bitartean), gaian interesa izan dezaketen herritarrak identifikatu ahal izango ditugu, Plana bera garatzean, eta, bereziki, herritarrekin egiten diren ekintzetan. Komeniko litzateke pertsona guzti horiek batu eta herritar-talde bat osatzea Berdintasunerako Planari jarraipena egin diezaion.





## 8 Planaren kudeaketa-eredua

Ondorengo bi koordinazio-egitura hauek dagoeneko osaturik eta martxan dauden arren, garrantzitsua deritzogu beraien garrantzia azpimarratzeari:

<b>SAILBURUEN KOORDINAZIO-BILERA</b>		
<b>Berdintasunerako II. Planaren barne-garapen tekniko koherente eta koordinatua bermatzea eta Planaren jarraipen teknikoa egitea</b>		
<b>Funtzioak</b>	<b>Parte-hartzaileak</b>	<b>Iraupena</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Planaren ondorioz egingo diren ekintza guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan</li><li>• Helburuen eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea</li><li>• Neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurri horien ezarpena baloratzea</li><li>• Planaren komunikazioa egitea</li><li>• Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Berdintasun-teknikaria</li><li>• Alkatea</li><li>• Udal-sail bakoitzeko arduraduna</li></ul>	2015-2018

<b>OARSOALDEKO BERDINTASUN-MAHAIA</b>		
<b>Eskualdeko udaletan egiten ari diren berdintasun-ekimenak koordinatzea eta elkarlana sustatzea eskualdeko beharrei erantzuteko.</b>		
<b>Funtzioak</b>	<b>Parte-hartzaileak</b>	<b>Iraupena</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Elkarren lanaren berri izatea eta eskualdeko koordinazioa bermatzea</li><li>• Elkarlana bultzatzea</li><li>• Eskualdeko festetan eraso sexistak saihesteko ekimen bateratuak diseinatzea eta martxan jartzea</li><li>• Sentsibilizazio-kanpaina bateratuak diseinatzea eta garatzea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Lezoko Udaleko Ongizateko arduraduna</li><li>• Pasaiaiko Udaleko berdintasun-teknikaria</li><li>• Errenteriako Udaleko berdintasun-teknikaria</li><li>• Oiartzungo Udaleko Ongizateko arduraduna</li></ul>	2015-2018



## 8 Planaren kudeaketa-eredua

Berdintasunerako II. Plana gauzatu ahal izateko, berdintasun-teknikaria edo haren funtzioak beteko lituzkeen aholkularitza-zerbitzua kontratatu beharko litzateke. Horrez gain, ondorengo bi egitura berri hauek sortu beharko lirateke Udalean:

### BERDINTASUN-ARDURADUNAK

#### Berdintasunerako Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea

Funtzioak	Parte-hartzaileak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none"><li>Planaren ondorioz egingo diren ekintza guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan</li><li>Planak esleitutako ekintzak egitea eta helburu zehatzak lortzea</li><li>Plana garatzeko egitura guztiak koordinatzea</li><li>Helburuen eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea</li><li>Neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurri horien ezarpena baloratzea</li><li>Planaren komunikazioa egitea</li><li>Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Berdintasun-teknikaria</li><li>Berdintasun-zinegotzia</li></ul>	2015-2018

### BERDINTASUN-BATZORDE POLITIKOA

#### Berdintasunerako Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea

Funtzioak	Parte-hartzaileak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none"><li>Planean zehazten diren ekintzak gauzatzeko bitartekoak jartzea</li><li>Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea</li><li>Neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurri horien ezarpena baloratzea</li><li>Berdintasun Batzordetik jasotzen diren proposamenak baloratzea eta horien inguruko erabakiak hartzea</li><li>Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Berdintasun-zinegotzia</li><li>Udaleko gainerako alderdietako ordezkari politikoak</li><li>Berdintasun-teknikaria</li></ul>	2015-2018

## 8.2. Aurrekontua

Hau da Berdintasunerako Plana gauzatzeko aurreikusi den urtez urteko aurrekontua:

UDALA	2015	2016	2017	2018
GUZTIRA	38.100	50.200	62.700	68.700

Aurreikusitakoaren arabera, 2018an egin beharko litzateke inbertsiorik handiena Lezoko II. Berdintasunerako Plana garatzeko: 68.700 €. Hala ere, kontuan izan behar da inbertsio handi eta eraginkorrena berdintasun-teknikari edo aholkularitza-zerbitzu bat kontratatzea izango litzatekeela. Inbertsio horrek, urtero, 30.000 € inguruko gastua izango luke Udalarentzat. Aurreikuspenak lan-jardun erdi baten arabera dira, baina Udalak moldatu lezake faktore hori, bere behar eta aukeren arabera. Hala ere, kontutan izan behar da berdintasun-teknikaririk edo sailik gabe gastua are handiagoa izango litzatekeela; izan ere, Planeko ekintza gehienak teknikari aditu horren esku geratuko lirateke, eta ez litzateke kanpo-kontrataziorik egin beharko. Horri esker, aurreikusitako aurrekontua are gehiago murriztuko litzateke ziurrenik.

Bestalde, urteko 30.000 €-ko gastua onartuz gero, Udaleko pertsonal-gastuetara bideratuko litzateke, eta Berdintasunera bideraturiko aurrekontutik atera beharko luke, beste sailtako pertsonal-gastuak bezala.

## 8.3. Ebaluazio-sistema

Lezoko Berdintasunerako II. Plana (2015-2018) urtekako planen bidez antolatu eta garatuko da. Urte bakoitzaren hasieran, urte horretan martxan jarriko diren ekintzak identifikatu eta planifikatuko dira, eta ekintzen aurrekontua ere zehaztuta egongo da. Urte amaieran, egindakoa eta egin ez dena (urteko balantzea) baloratuko da sortuko diren egitura guztietan. Balorazio hori eta lau urterako plana dela kontuan hartuz, hurrengo urteko plana egokituko da. Hala, urteko planek eta aurrekontuek lotura estua izango dute ebaluazioarekin.

Ezarriko dugun ebaluazio-ereduari esker, baterako gogoeta egin ahal izango da ekintzak planifikatzean, plana martxan den bitartean eta plana amaitutakoan. Horrek planaren jardueri, emaitzei eta eraginei buruzko balorazio-irizpideak emango dizkigu, irizpide oinarridunak eta komunika daitezkeenak. Horri esker, ondorioak eta gomendioak lortuko ditugu ekintza doitzeko eta geroko ekintza hobetzeko erabakiak hartzeko.

Une honetan ebaluazio-eredu bat ezarriko balitz, helburu hauen inguruan planifikatu beharko litzateke:

- Lezoko Emakumeen eta Gizonen II. Berdintasunerako Plana aplikatzearen emaitzak ezagutzea.
- Emaitza horiek Planean zehazturiko irizpideen arabera baloratzea.
- Planaren ekintzekin berekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Geroko planak aplikatzeko gomendioak ezartzea.
- Informazio interesgarria egituratzea eta erreferentzia izan daitezkeen adierazleak egitea.

Ebaluazio-eredu horren ezaugarri nagusiak dira metodologia parte-hartzaileak eta mistoak erabiltzen dituela, etengabekoa dela, jarduteko arduradunak esleitzen dituela, proiektu guztiak batzen dituela (ekintzak hobeto sistematizatzeko) eta emaitzak dituela helburu. Jarraian azalduko dira ezaugarri horiek:

→ **Ebaluazio mistoa da**, urteko balantzea aurkeztu eta kontrastatuko baita Sailburuen Koordinazio Bileran eta Berdintasun Batzorde Politikoan.

→ **Etengabekoa**, ekintza eta helburu bakoitza amaitu ondoren, arduradunek eta inplikaturiko pertsonen ekintzen garapenean izandako lorpenak eta zailtasunak baloratuko dituztelako, eta informazioa urteko balantzean jasoko delako.

Hartara, helburu bakoitzak bere adierazleak izango ditu. Adierazle horiek zer neurtu behar den adieraziko dute, eta berdintasun-egoeraren bilakaera interpretatzen lagunduko dute. Ekintza bakoitzeko ebaluazio-fitxa bat bete beharko da, ekintzaren emaitzak jasotzeko eta urteko balantzean sartzeko.

→ **Emaitzak batuko dituen**a, zeren eta eginiko prozesu guztiak laburbilduko baitira eta guztizko emaitzen balorazio orokorra eta azkena emango baita.

→ **Emaitzak ebaluatuko ditu**, ekintzen (jarduerak, materialak, laguntzak) eta ondorioen azterketa egin beharko baita.

→ Eta, azkenean, **lau urteko plana amaitutakoan, ebaluazio zabalago bat egingo da**, bai Planaren betetze-maila baita horren emaitzak eta herrian izan duen inpaktua neurtzeko ere.

Analisirako metodologiak kontuan izango ditu hainbat iturritatik bildutako informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa, besteak beste, datu-bankuak, argitalpenak, arloen informazioa eta prozesuan sorturiko dokumentuak. Helburu bakoitzerako eta ekintza bakoitzerako ezarritako adierazleei erantzungo diete datuek.

Hauek dira balorazio-irizpideak:

→ Eraginkortasuna, hots, Planak dakartzan esku-hartzeko ildoetan eta neurrietan inplizituki ezarritako helburuen betetze-maila.

→ Proiektuen estaldura, hau da, zerbitzu, programa eta baliabide-eskatzailen kopurua eta onuradunen kopurua alderatzea.

→ Aurrekontuaren eta ezarritako kronogramaren betetze-maila.

→ Eta jarraipen-prozesuan bildutako datuen kalitatea.

Bi tresna landu ditugu Berdintasunerako Plana egoki kudeatzeko eta ebaluatzeko:

→ Batetik, Plana kudeatzeko excell-eko tresna. Tresna horrek lagungarria izan nahi du Planeko egiazko tresna eta tresna bizia izan dadin, eta, Planaren urtekako jarraipena egiteaz gainera, ezarritako helburuen betetze-maila neurtzeko adierazle-sistema izan dadin.

⇒ Bestetik, ekintzak ebaluatzeko proposatzen dugun fitxa-eredua eranskinen atalean jaso dugu (txosten honen amaieran), bere horretan erabiltzeko edo Lezorako egokien ikusten dena sortzen lagungarri izan dadin.

## Ekintzak ebaluatzeko fitxa-eredua

PLANEAN JASOTAKOA				
ARDATZA		ARLOA		ARDURADUNA
HELBURUA				
EKINTZA				
GAUZATZEKO DENBORA				AURREKONTUA
2015	2016	2017	2018	
EGINDAKOA				
EKINTZAREN DESKRIAPENA				
JASOTZAILEAK PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK				
GAUZATZEAREN ARDURADUNA(K)				
ARDURA IZAN DUEN SAILA	PERTSONA ARDURADUNAK	ELKARLANEAN ARITU DIREN SAILA(K)	ELKARLANEAN ARITU DIREN PERTSONA(K)	
GAUZATZEKO DENBORA				AURREKONTUA
2015	2016	2017	2018	
PROZESUAREN ADIERAZLEAK				
LORTU DIREN EMAITZAK				
IRUZKINAK				